



Erabakia gure esku

9 herri galdeketa egingen dira igandean Sakanan / 2-5

Sakanako Gure Esku Dago taldeetako ordezkariak.

Egin beharreko inbertsioek Sakanako Mankomunitatearen aurrekontua bikoiztea ekarri dute / 7

Sakanan ekonomia soziala sustatzeko hitzarmena sinatu dute ANEL-ek eta Garapen Agentziak / 11

San Adrian festak ospatuko dituzte Lizarragan asteburuan eta Etxarrin gaur / 8

Lakuntzak emakumezkoen bizikleta proba hartuko du larunbatean / 17

Trasteando taldeak Altsasuko kantuen bilduma jaso du diskoan hirugarren aldiz / 23



badatoz!

gk
KOMUNIKAZIOA

Behar dituzun euskarri guztiak!

Foru plaza, 23-1. Altsasu | 948 564 275 | 948 562 107
gk@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus

Sakandarren esku dago erabakitzeke ahalmena

Herri-galdeketen aurtengo hirugarren olatukoa izanen da igandekoa, aurretik apirilaren 2an eta maiatzaren 7an egin baitira. Nafarroako 24 herritan estatus politikoari buruzko galdeketa egingen dira etzi. Horietako 9 Sakanakoak dira

SAKANA

Gure Esku Dagok (GED) deituta herri galdeketa egingen dira igandean Irurtzunen, Irañetan, Arruazun, Lakuntzan, Arbizun, Urdiainen, Altsasun, Olatzagutian eta Ziordian. Haietako batzuen antolakuntzan ari dira Eva Leatxe eta Jose Ramon Garin (Lakuntza), Francis Irigoien eta Benito Arakama (Urdiain), Itziar Flores (Altsasu), Gurutze Goikoetxea (Olatzagutia) eta Naiara Perkaz (Ziordia).

Etzi "herritarrok sortutako galdera bati" erantzuteko gonbidapena egin dutela esan digu Floresek. "Guk, behintzat, inoiz egin ez dugun ariketa bat". Galdeketa garrantziaz galdetuta Irigoienek esan digu "herriak herriari edozein gauza galdetzea, berak nahi duena erabakitzeke". Garinendako "garrantzia du herriari beste ohitura bat ematea; gauzak egiteko jendeari galdetu behar zaio. Ia jendea hasten garen gero erabakitzeke edo edozer gauza planteatzeko ohitura hori hartzen. Hasiera bat da, gauzak erabakitzekean jendeak beste ohitura bat sortzea".

Aldi berean

Bederatzi herrietan egingen da galdeketa, eta horren zergatiak



Urdiainen alde aurretik botoa ematen.

galdetuta, Irigoienek azaldu digu "batek besteari esaten, horrela hasi ginen". Urdindarrei altsasuarrek esan zieten. "Herriko jende desberdina elkartu ginen eta hor gabilta. Pozik gaude". Grinek gaineratu duenez, "Sakana batera ari gara, ez herri bakoitza. Denak elkartu gara eta nik uste dut oso garrantzitsua dela hori". Floresek gogora ekarri du joan den urtean Euskal Herrian sortu zen galdeketa "olatu handia". Eta gaineratu du, "Nafarroan aurtan izanen da galdeketa lehenengo olatua.

Nik uste dut ardura bat badugula ere".

Goikoetxeak eta Perkazek baieztatu dute elkarrekin antolatzean elkarri laguntza emateko aukera izan dutela. "Bakar bakarrik planteatzen baduzu, zalantza guztiak, lanak... Denen artean errazago izaten ari da", gaineratu du Goikoetxeak. Floresek argitu digu galdeketa data hurbildu ahala astero elkartu direla, baina bestela hilean behingo bilerak izan dituztela.

Sakana mailan lan egiten ari badira ere, herri bakoitzak bere

galdera duela gaztigatu ditugu eta Irigoienek esan digunez, "hasieran ere ez genuen hori bateratu. Herri bakoitza sinadurak hartzen hasi zen eta bakoitzak zer lortu nahi zuen. Guk jendeari azaltzen genionean esaten genuen herriak nahi zena galdetzea erabakitzeke nahi genuela. Bileran galderak sortu ziren. Urdiainen bi dira, adibidez". Floresek gaineratu duenez, "herri bakoitzean galdera desberdina sortu da, desberdinak garelako. Hori errespetatu da".

Irizpideak

Galderak adosteko garaian zein irizpide izan dituzten kontutan jakin nahi izan dugu. Goikoetxeak esan digunez, "ahalik eta jende gehien parte hartzeko" moduko galdera bilatu dutela. "Ez izatea galdera bat jendea kanpoan gelditu daitekeena. Jende guztia eroso sentitzea galdera hori erantzuten. Hori zen helburua denondako, gero zer atera den. Baina hori denok bateratua genuen", zehaztu du Floresek. "Eta gaur egun dagoen egoerarekin aurrerapauso bat suposatzen zuen. Zeren ezin zen galdetu ezer ez aldatzeko" gaineratu du Perkazek.

Lakuntzako adibidea jarri du Garinek: "tailer batzuk egin genituen eta han hiru galdera ateratu ziren. Baina, gero, denen artean adostu genuen eta bakararra gelditu zen. Batzuk galdera batekin ados zeuden, besteek batzuk beste gauza batzuk sartu nahi zituzten. Horrekin joan gara".

Ondareaz

Galdeketa herrian zer utziko duen galdetuta "parte hartze ohitura" aipatu du Goikoetxeak. "Gutxienez hasi erabakitzen eta, batez ere, parte hartzeko ohitu-

ra hori herrian hartzen dugun", Irigoienek iritziak. Arakamak, berriz: "kontzientzia sortu, bakoitzak aukera dugula". Floresek: "pedagogia bat sortzea". Irigoienek, atzera: "eta parte hartzeko beldurrik ez izateko, nahiz eta batek gauza bat pentsatu eta beste batek beste bat. Bakoitzaren iritzia mahai gainean jarri eta gero edozer gauza aukeratzeko". Elkartzearen ideia mahai-gaineratu du Floresek.

Irigoienendako "ona izan da, jende desberdinarekin edozein gauzak hitz egiteko aukera sortu duelako, lasai eta libre. Hori nerretako herrian oso aberatsa da. Honek beste harreman mota batzuk sortzen ditu, eta polita da". Gainontzekoek baieztatu egin dute. Floresek esan duenez, "errespetuzko jarrera bat. Bakarrik esaten duzuna da botoa ematea. Hori da hasieran jendeari ulertzea kosta zitzaiona, ez duzula esaten zer bozkatu behar duen, baizik eta bozkatzeko". Garinen ustez, galdeketa balioko du "jendeak sentitzeke inork ez garelako inor baino gehiago. Jendea lasai joateko, bere botoa berea da eta denok errespetatu behar dugu". Lakuntzarraren ustez galdeketa "pauso bat da. Oso garrantzitsua da. Jendea konturatu behar da erabakiak gure esku daudela eta gauzak beste modu batera egin behar direla". Leatxek ametsak ere errealitate bihurtzen direla gaineratu du.

"HONEK BESTE HARREMAN MOTA BATZUK SORTZEN DITU, ETA POLITA DA. OSO ABERATSA"

Ostiralero

SAIOA

9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astelehenetik ostegunera

Metropoli forala

9:00etatik 11:00etara

Esataria: Maider

Gaurko gaiak:

- Aitor Zubietarekin erretiroaz.
- Sakanako Mankomunitateko aurrekontuak.
- Igandeko herri galdeketa antolatzaileekin hizketan.

beleixe

www.guaixe.eus-en ON LINE



Gure Esku Dagoko Sakanako hainbat herrietako kideak bilerara bidean.

Galdeketa: lan handia emaitzen zain

Boto aurreratuko aukera baliatuta, hainbat sakandarrek dagoeneko botoa eman dute igandeko herri galdeketa. Etziko galdeketa prestatzen aritu diren hainbat taldeetako sakandarrek orain arteko bizipenen berri eman digute.

SAKANA

Ibarreko Gure Esku Dagoren (GED) taldeetan lanean ari direnei denetarik egitea tokatu zaie azken asteetan. Sakandarrek emanen duten erantzuna "aurreikustea zaila" dela sentitzen dute denek. Galdeketa behar bezala antolatzeke egin behar izan dituztenak, haien sentipenak eta iganderako aurreikuspenak jaso nahi izan ditugu.

Taldearen sorreraz

Lakuntzan GED taldea giza kateko sortu zen. 6-7 ziren hasieran. Gero laguntza eskatzen joan dira eta taldera jende gehiago hurbildu da. Joan den urtean galdeketa egitea erabaki zutela azaldu du Eva Leatxek. Galdeketa aldea babes sinadurak lortzeko jende askoren laguntza izan dutela nabarmendu du.

Francis Irigoienek urdiaindarrak gogoratu du giza katean parte hartzea beretako "egun handia" izan zela. Taldera batu eta eguberrietan hasi ziren

galdeketa mugitzen. 6-7 dira taldean eta puntualki beste urdindar batzuen laguntza izaten dute.

Altsasuko, "herri guztietan bezala", giza kateko sortu zen, hiruzpalau lagunekin. Batzuk utzi eta 2015ean bi sartu ziren, Itziar Flores tartean. Irailean 8 kide ziren eta egun 12 dira.

Dozena bat olaztiarrek osatzen dute GED taldea. "Kostata sortutako talde polita" Gurutze Goikoetxearen esanetan. Hasieran hiruzpalau ziren: "herriko taldeak batzarrera deitu zituzten; hemen gaude, aukera hau dago, baina laguntza behar dugu". Laguntza eskatu dutenentan askok eman dutela gaztigatu du.

Lau ziordiarrek osatzen dute GED taldea. Azaroan hasi ziren lanean. Behar izan dutenean ziordiarrek lagundu dietela azaldu digu Naiara Perkazek.

Giotze lanak

Jose Ramon Garinek aitortu du Lakuntzan "kristoren lana" egin

dela. Egindakoarekin "oso pozik" dagoela esan du. "Igandean ikusiko ditugu emaitzak". Leatxek "gutxienez sinatu zutenak (541) botoa ematea espero dugu" esan du. "Bai, ez edo txuria. Jendea parte hartzerantz animatzen ari gara" esan du Garinek.

Irigoienek Urdiaingo bideoaren grabaketaren egunak "oso politak" izan direla nabarmendu du. "Oso gustura pasatu genuen". GEDen kanta ere abestera animatu ziren: "jendea pozik eta kontentu zegoen eta guretako bideoarena oso polita izan da". Hura aurkezteko prestatutako egunean "ondo ez, hobeto pasa genuen. Jendea oso pozik. Giroa sortu zen. 140 pertsona bildu ginen". Hasieran egindako argazkiaren oroitzapenak gortetzen ditu ere Irigoienek. Urdiaindarrak galdera bikoitza erantzun behar dute eta hori "jende gehiago bozkatzeko" erabaki zuten, "listo" erabaki ere.

Altsasun sinadura asko biltzea helburua zuen txotxa antolatu

zuten otsailean. Jasotako sinadura kopurua jakinarazteko kriseilu gaua antolatu zuten. Floresek Jon Maiak Zumalakarregi plazan emandako hitzaldia nabarmendu du: "sentsibilitate desberdineko jendea elkartu nahi genuen". Bideoaren grabaketa "oso polita" eta zinemako aurkezpena "oso hunkigarria" izan zela nabarmendu du.

Ferietako liskarraren ondoren herrian sortu den giroaren ondoren Altsasuko GEDekoek ez dute galdeketa bertan behera uztea pentsatu. "Baina, egia esan, askotan bai gelditu garelako bigarren mailan. Hasieran geneuzkan ideiak zapuzten joan dira. Besteak indar handia hartu du. Baina, aldi berean, batak ez du bestea kentzen: erabakitzeke eskubidea bagenu, ziurrenik, gauza asko ez lirakeke Madrilén erabakiko".

Olatzagutian joan den urteko San Juanetarako galdeketa egitea erabakia zuten eta kriseilu gaua antolatu zuten. Galdera aukeratzeko bileran bi aukera sortu ziren eta denen artean adostuz zehaztu zuten igandean erantzunen dena. Galdeketa parte hartzerantz animatuz "talde desberdinak" agertzen diren bideoa egin zuten. "Laguntzarekin, eta oso polita" izan dela esan digu Goikoetxeak.

Bideoaren aurkezpenaren egunean alkate ohien babes adierazpena publiko egiteko ekitaldia antolatu zuten. "Horretaz oso pozik gaude. Zeren herriko alkate ohi gehienek babesa lortu dugu. Alkate desberdinak... Oso inportantea da".

Ziordian hainbat gauza antolatu dituzte eta "gehienak, egia esan, ongi ateratu dira eta poz-ozik gaude". Joan den igandean grabatutako bideoaren aurkezpena jende asko hurbildu zela jakinarazi digu Perkazek. Aurretik pintxo-poteak antolatu izan dituzte. Edota Santa Luzia egunean sinadura bilketari hasiera emateko kriseilu gaua antolatu zuten.

Igandera begira

Garinek "jendea oso kontzientziatuta" ikusten du, "printzipioz, jendea parte hartuko duela pentsatzen dugu", gaineratu du lakuntzarrak. Urdiainen "jendeak badaki orain zer den GED. Guretako hori inportantea izan da", esan du Irigoienek. "Orain behar duguna, ateratzen dena

ateratzen dela, jendea parte hartzea da".

Floresek esan duenez, "ilusioa daukagu, eta jendea erantzunen duela espero dugu. Baina ez dakigu".

Goikoetxeak esan digunez, "galdeketa jasotako babesa eta botoak oso desberdinak izan daitezke, beraz, sorpresa izanen da igandeko parte hartzea". Ziordian "asko kostata", babes handia lortu du galdeketa, "ea orain zenbat hurbiltzen diren boto ematera" galdetu du Perkazek.

Herrietan alde aurretik botoa emateko aukera hainbatek erabili duela jakinarazi digute. Lakuntzan GEDeko taldekideen artean egin duten porra zeinek irabaziko duen etzi jakinen da. Zehazteko dute ere GEDeko Sakanako taldeen afaria noiz egin.

Azken biak

Herri galdeketa egin ahal izateko sinadura bilketak abiaraziko zituztela iragarri zuten, abenduan, Sakanako zazpi herri aipatu ziren. Baina, azkenean, bi gehiago batu dira. Irañetan GED taldea irurtzundarren laguntzarekin sortu zen duela bizpahiru hilabete. Sei kidek osatzen dute taldea. Irañetan galdeketa berri emateko esku-orriak, kartelak eta banderolak erabili dituzte. Gainontzeko guztien modura, galdeketa antolatu ahal izateko nahikoa babes jaso zituzten, 19, hain zuzen ere. Irañetan, etzi, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 20:00etara botoa emateko aukera izanen da.

Arruazun, berriz, lakuntzarrek animatuta sortu zuten taldea, jenderik eta aukerarik ba ote zegoen aztertu ondoren. Azarotik bizpahiru kide ari dira hilerok biltzen. Galdeketa egin ahal izateko 27 arbazuarren sinadura jaso zuten. eta haren berri maiatza hasieran eman zuten. Baita igandean, alde aurreko botoa ematearekin batera. Etzi hautestontzia ostatu parean egonen da, 12:00etatik 20:00etara, parte hartu nahi dutenentako.

ANTOLATZAILEENDAKO ZAILA DA AURREIKUSTEA ETZI ZEIN PARTE HARTZE IZANEN DEN

Erabakiaren festak ospatuko dira igandean

Gure Esku Dagok iganderako herri galdeketak antolatu ditu. Sakanako bederatzia herrietako herritarrek galderei erantzuteko aukera izanen dute. Baina galdeketa antolatzearekin batera Gure Esku Dago herrietako taldeek egitarau bana antolatu dute. Egitaraueri Erabakiaren festa deitu diete, eta ez da ez musikaririk ez jan-edanik faltako.

IRURTZUN

DOMEKA 18

12:00 Kalejira, plazatik. Txalaparta, trikitilariak, gaiteroak eta Orritz-Iskidi.

14:30 Bazkaria, plazan. Ondoren, mus txapelketa.

16:00 Herri jolasak (igela, toka...)

18:00etan Kontzertuak: Zaunka, Shokdown eta Txartoak.

IRAÑETA / ARRUAZU

Hasiera batean, behintzat, Irañetan ez dago ezer prestatuta iganderako. Arruazun, berriz, galdeketako zenbaketa despeditu ondoren auzatea izanen da.

LAKUNTZA

DOMEKA 18

12:30 Erraldoi eta buruhandiak

Galderak

Irurtzun

1) Nahi al duzu Nafarroako herritarrok burujabeak izatea etorkizun politikoa erabakitzeke?
2) Nahi al duzu Euskal Herri burujabe bateko irurtzundarra izan?

Irañeta

Nahi al duzu Nafarroako herritarrok burujabeak izatea etorkizun politikoa erabakitzeke?

Arruazu

Arruazuar gisa, euskal herri burujabe bateko herritarra izan nahi duzu?

Lakuntza

Nahi al duzu Nafarroako herritarrok burujabeak izatea etorkizun politikoa erabakitzeke?

Arbizu

Nahi duzu Nafarroako gainerako euskal lurraldeekin estatu bat eratzea?

Urdiain

1) Nahi al duzu herritarrok gure etorkizuna era librean erabakitzea?
2) Nahi al duzu Euskal Herri burujabe bateko urdindarra izan?

Altsasu

Nahi al duzu Nafarroako herritarrok burujabeak izatea etorkizun politikoa erabakitzeke?

Olatzagutia

Nahi al duzu Nafarroa burujabe bateko herritarra izan?

Ziordia

Nahi al duzu Euskal Herri burujabe bateko herritarra izan?

herrian barna.

13:30 Dantzariak, plazan.

14:00 Bazkari autogestionatua. Mahaiak, aulkiak, edaria eta ogia jarriko dituzte.

Ondoren, musika animazioa.

ARBIZU

OSTIRALA, 16

21:00 Parrillada, plazan. Tiketak ohiko tokietan.

LARUNBATA, 17

19:00-21:30 Dantzaldia Oharkabe taldearekin.

20:00 Argazki erraldoia.

IGANDEA, 18

9:00 Etxajua.

12:00 Trikitilariak.

13:00 Ekitaldia: bertsolariak eta aurreneko parte hartze datuak.

13:30 Aate.

18:00 Herriko gaztetxoan herri

kirol saioa.

20:00 Aate.

URDIAIN

DOMEKA 18

10:30 Auzatia, plazan.

11:00 Txistulaiek eta trikitilaiek herria alaituko dai.

11:30 Haurrendako jolasak eta tailerrak.

13:00 Iñigo eta Imanol anaiak.

14:30 Kuadrilen bazkaiek, bertsolaiek alaituta, plazan.

17:00 Kuadrilen arteko herri kirolak.

17:30etik aurrera Kontzertuak: Kaskatako eta Garabatos, plazan.

ALTSASU

LARUNBATA 17

20:00 Kantu poteoa

DOMEKA 18

Goizean, Txistulariak eta gaiteroak.

11:30 Herri kirolak.

13:00 Ekitaldi nagusia, ondoren, Etorkizuna dantza taldea.

13:30 Gazte kalejira trikitilariarekin eta elkarrekin bozkatzeko zutabea.

16:30 Fanfarrea.

18:00 Dantzaldia Modestorekin.

21:00 Emaizak eta akabera ekitaldia.

Oharrak: Egunean zehar taberna egonen da lortiko zabalgunean. Korral koloreko kamixeta janzteko gonbidapena egin dute.

OLATZAGUTIA

DOMEKA 18

9:00 Ezkila errepika.

11:00 Erraldoiak La Cigarra txarangaren laguntzaz.

11:00-13:00 Puzgarriak,

haurrendako, plazan.

12:30 Kalejira Alfredo, Barrena eta Kepa musikariekin.

14:30ean Herri bazkaria.

17:30 Kontzertua Malkogarriyak taldearekin.

ZIORDIA

DOMEKA 18

9:00 Etxajua.

12:00 Haurrendako jolasak.

13:00 Gure Esku Dagorekin lotutako abestien koreografiak.

14:00 Trikitilariak.

15:00 Herri bazkaria, trikitixaz alaituta.

17:00 Sokatira.

17:30 Musika eta Unnamables taldearen kontzertua.

Lau erakundek baiezkoren aldeko kanpaina egin dute

LAB sindikatuak, Ernaik, Ikasle Abertzaleak eta Independentistak Sareak baiezkoa eskatu dute

SAKANA

Gure Esku Dagok antolatutako herri galdeketetan parte hartze- ra dei egin du LAB sindikatuak. "Erabakitze eskubidea behar dugu, lan eta gizarte egoera iraultzeko. Erabakitze eskubidea,

erreforma eta murrizketa guztiei aurre egiteko eta alternatibak eraikitzeke. Erabakitzeke esku- bidea, Euskal Herria prozesu eratzaile eta eraldatzaile batean murgiltzeko". LABetik gaineratu dutenez, "oinarri berriak di-

tuen jendarte eredu askea nahi dugu eta posible da". Langileak euren "borondatea" azaltzera animatu ditu. "Estatua da tresna Euskal Herria politikoki egituratzeko eta sozialki kohesio- natzeko. Bizitza duina bermatzeko behar ditugun baliabide politiko, ekonomiko eta sozialak eskuratzeko. Langileriaren bizi eta lan baldintzak hobetzeko baiezkotoa eskatu du LABek, Ernaik, Ikasle Abertzaleak eta independentistek bezala.



LABeko kideak baiezkotoa eskatzen.

Beste galdeketen aurrekariak ditugu

Bederatzi herri galdeketa eginen dira aldi berean ibarrean etzi. Hala ere, Sakanan aurretik halako gehiago izan dira. Haietako bi estatus politikoaren ingurukoak izan ziren. Udalek edo herri mugimenduek antolatutakoak ere izan dira.

SAKANA

Etxarri Aranatzen egin zen estatus politikoari buruzko aurreneko galdeketa. 2014ko apirilaren 13an etxarriarrek Nahi duzu Euskal Herri independente bateko herritarra izan? galdera erantzuteko aukera izan zuten eta %43,61k egin zuten.

Gure Esku Dago dinamika sortu zen ondoren eta, haren abarora, bakaikuarrek Euskal herri independente bateko herritarra izan nahi duzu? galdera erantzuteko aukera izan zuten joan den urteko azaroaren 27an eta parte hartzea %65,31ekoa izan zen.



Altsasuarrak alde aurretik botoa ematen, azokan.

Herri galdeketen babesak

Herria	Sinadurak	Erroldaren %
Irurtzun	870	%20
Irañeta	19	%13,3
Arruazu	27	%30
Lakuntza	541	%52
Arbizu	884	%87
Urdiain	267	%51
Altsasu	935	%18
Olatzagutia	330	%25
Ziordia	140	%43
Guztira	2963	

Bestalde, AHT Gelditu! Elkarlanak antolatuta Abiadura Handiko Trenaren inguruko galdeketa egin zen Arbizun 2009ko maiatzaren 17an. Parte hartzea %48koa izan zen.

Igandeko galdeketetan botoa nola eman behar da?

Edozein hauteskundeetan bezala izanen da, baina 16 urtetik gorako herritarrek osatuko dute errolda

SAKANA

Herri guztietako etxebizitzetara boto txartelak eta informazioa banatu dituzte Gure Esku Dago kideek. Herrietako plazetan karpa bana jarriko dute eta "beste hauteskundeetan bezala, bozkatzeko mahaia izanen da, ordenagailuak dituzten arduradunekin. Prozedura normala da" esan digu Gurutze Goikoetxeak. "Etxean jaso duen papera hartu, bestela karpan egonen dira, eta hauteskontzian sartu, betiko moduan. 9:00etatik 20:00etara" Naiara Perkazek esan digunez.

Bi ohar garrantzitsu ere egin dituzte: 16 urtetik aurrera eman daiteke botoa, eta erroldatuta dauden etorkinek ere eman dezakete botoa. Izan ere, etziko galdeketetan herrian erroldatuta dagoen edozein pertsonak eman dezake botoa. Nork bere burua identifikatu behar duenez, nortasun agiria eraman behar da. Agiria kadukatuta baldin badago edo botoa eman behar den herrikoa ez den beste helbide bat agertzen bada nortasun agirian, erroldaren ziurtagiria behar da botoa emateko. Dagoeneko galdeketan bai, ez edo txu-

ri boto emateko aukera hainbat sakandarrek eman dute dagoeneko. Igandean herrian egon ez eta alde aurretik botoa eman nahi dutenek hiru herrietan aukera izanen dute oraindik. Arbizun, larunbatean, 12:00etatik 14:00etara, plazan. Altsasun, gaur, 19:30etik 21:30era Zumalakarregiko plazan. Ziordian ere gaur, 19:00etatik 21:00etara. Igandean galdeketak Sakanan behar bezala egiten ari direla bermatzeko Kataluniako Junts pel Si-ko diputatu bat eta CUPEko zinegotzi bat etorriko dira. Herri herri ibiliko dira biak.

Botoa non eman

Galdeketa egin behar den herri guztietan GEDeko kideek karpa bat jarriko dute eta haietan egonen dira hauteskontziak. Irurtzun, Arruazu, Lakuntza, Arbizu eta Urdiainen plazan egonen dira. Irañetan frontoian. Altsasun, berriz, Iortia kultur gunearen parean. Olatzagutiaren kasuan ere kultur gunea ondoan izanen da, Sarasate plazan. Azkenik, Ziordian, udaletxe parean, elizaren eta elkartearen arteko plazan egonen da hauteskontzia.

Beste hiru alderaketa

Aurretik ere egin izan dira herri galdeketa Sakanan. Udalek deituta batzuk, herri-mugimenduak besteak. Irurtzun festen data erabakitzeko galdeketa deitu zuen udalak 2010eko otsailko azken asteburuan. Hartan 16 urtetik gorako irurtzundarren %20k parte hartu zuen. Arrazoi beragatik bitan antolatu du galdeketa Altsasuko Udalak. Aurrenekoan 2009an, %27ko parte hartzearekin eta, bigarrenean, 2015eko martxoaren 29an, parte hartzea %23,26koa izan zen.

JANATXO

ETXEKO BAZKARI ETA POSTREAK ENKARGU BIDEZ PRESTATZEN DIRA

· Fernando Urkia kalea, 29 · Arbizu ·

· 686 654 382 ·
· 666 616 303 ·
· 687 371 939 ·



ZURE NEURRIRA EGINDAKO BIDAIAK

Apaolaza Autobusak
943.72.48.10

info@autobusesapaolaza.com
www.autobusesapaolaza.com



ASTEKOA

MARIAN MENDIOLA

%3,7a

Klasikoa bihurtu den Altsasuko BTT Zeharkaldian iltzaturik gelditu zaidan irudia kontatzeko erabiliko ditut hitz-lerro horiek. Igande goiza, herriko plaza gainezka, aurrera, atzera, ezkerredera edo eskuinera begirata ere, mendiko bizikletadun gizonak non-nahi. Baina, halako batean, nesken bat ikusten dut eta "deformazioak" eramanda gehiago baziren arrastinatzen hasten naiz. Bakan batzuk ikusten ditut, baten bat ezaguna eta besteren bat herrikoa.

Eta kuriositateak jota abiatzen naiz mendiz inguratutako bailara honetan txirrindularitza emakumeen presentzia holako irtenaldietan nolakoa den ezagutzera. Adierazle objektiboetara joaz, sexuen arabera banatutako datuak behar nituela jabetzen naiz. Barranka Txirrindularitza taldekoek emakume asko zirela esan didate, beste urte batzuetan baino gehiago. Hiruko erregela egiten dut: BTT martxa egin duten mila erdi pasatxo laguneren artean %3,7a emakumezkoak izan dira. Badakigu emakume kirolarien egoera gaur egungo gizartearen isla baino ez dela, non gizonzkoak nagusi baitiren arlorik gehienetan. Eta emakume kirolariaren jarduna, gehienetan, gizonenaren itzalpean geratzen dela, % 3,7 horiek kasu. Kirolari emakumeen

ereduak behar ditugu eta egon badaude, urrutira joan gabe. Asko dauzkagu, trebeak gainera; goi mailako kirolari izan edo ez.

Bizikletaren historian izan diren emakumeak itzalpetik eta ahanzturatik ateratzea garrantzitsua da. Honatx istorio txiki bat, zuentzat opari: ehun urte beteko dira Alfonsina Stradak Italiako Giroan parte hartu zuela, bere izenaren azkeneko letra kendu, a, eta mutil moduan izena eman zuen. Bere desioa eta ametsa karrera hori egitea zen, senarrak ezkontza egunean oparitutako bizikletarekin. Aldagailurik gabeko hogeiki kiloko gizonzkoentzako bizikletarekin ausartu eta gizonen artean lehiatu duen lehen eta azken emakumea izan da. Bizikletaren historian urrezko letrekin idatzirik egon beharko lukeen ausardia. Gaurko egunera bueltatuz, bejondeizuela mendi bizikleta martxan ibili zareten neska-emakumeoi! Datorren urteko XXIII. ekitaldian beste horrenbestek edo gehiagok parte har dezazuela! Eta bide batez, zorionak baita ere Barranka Txirrindularitza taldeko gizon-emakumei, gure bailarak duen mendi inguruneaz gozatzeko parada eskaintzeagatik eta horrelako ekimen arrakastatsua, jendetsua eta ez lehiakorra hain ongi antolatzeagatik.

BARRUTIK KANPORA

SAKANTZEN SAREA

Sakanak aurrera darrai!

Sakanako Plan Estrategikoaren harira, 2011an adostutako ibilbide orria jarraituz, aurreko urtean Mank-ek eta Nafarroako Gobernuak hitzarmena sinatu zuten. Hitzarmen horretan, 250.000 euroko ekarpena egiten zuen Gobernuak guztira 58 ekintza garatzeko.

Hitzarmen horrek aukera berriak ireki ditu: garapen agentzia asko sendotu da kontratazio berrien bidez. Gobernuarekin elkarlanerako markoa finkatu da, eta bide honetan arduraz, seriotasun osoz eta erangikorrek garelako frogatu diogu.

Horren adibide, ANEL eta Sakanako Garapen Agentziak sinatu berri duten hitzarmena. Helburu nagusia, eskualdean ekonomia sozialeko enpresak sortzea da. Enplegu jasagarria sortzea da Sakanako Plan Estrategikoaren helburu nagusia, eta krisian, ekonomia sozialak argi utzi du eredu oso eraginkorra dela. Batik bat, lurraldeari lotutako enpleguak sortu eta haiei eusteko modelo perfektua delako.

Bide berean, eskualdean ekintzailatza eta ekonomia sozialaren gaineko sentsibilizazio nahiz

informazio jarduerak egingo direla komunikatu zuen Mankomunitateko zuzendari Aitor Karasatorrek. Bestalde, bertako aktoreekin batera ekonomia sozialeko proiektuak identifikatu, dinamizatu eta garatzeko laguntza eskainiko du Garapen Agentziak.

Aurreko urtearekin alderatuta, langabezi tasak %14 egin du behera. Oraindik 885 pertsona daude lan bila, Iruñan izena emanda dauden irurtzundar eta arakildarrak kontutan izan gabe. Jarrai dezagun elkarlanean. Eskualdeak badu zentzua, Sakanak badu bizia.

Gure anai-arreben etxea

HAIZEA RAMIREZ DE ALDA POZUETA
ESPETXEAN DAGOEN ADURREN ARREBA.
ALTSASU

Gure anai-arreben etxea defendituko dugu. Manipulazioaren kontra, errepresioaren kontra, mendekuaren kontra, injustiziaren kontra, defenditu egingen dugu gure anai-arreben etxea. Galduko ditugu bisitak, loa,

indarrak; galduko dituzue besarkadak, aupadak, kementa, baina zuen etxea defendituko dugu. Besoak kenduko dizkigute, eta eskuarekin defendituko dugu gure anai-arreben etxea; eskuak ebakiko dizkigute, eta mihiarekin defendituko dugu gure anai-arreben etxea; mihirik gabe, ezpainik gabe,

ahotsik gabe, utziko gaituzte, eta bihotzarekin defendituko dugu gure anai-arreben etxea. Barrenak nahastuko zaizkigu, amorruek gaudituko gaitu, itxaropena ahulduko zaigu, baina gure anai-arreben etxeak iraunen du zutik. Bekozkoa ilunduko zaizue, irribarreak bihurrituko zaizkizue, begirada eraldatuko zaizue, baina zuen etxeak iraunen du zutik; zuek iraunen duzue zutik.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.500 (hutsuneak barne). Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:

GK, Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gixane Andueza Gollokoebea
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Patxi Flores Lazkoz

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.200

eta Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107
618 882 675
661 523 245

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus

Maketatzailea:

Ruben Imaz Alcaide
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

María Saez de Albeniz Bregaña
publizitatea@guaixe.eus

Guaixek ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

BAZKIDEAK



Demokrazioaren festa

DAVID OROZ

KONTSULTAK EGIN BEHAR DIREN
HERRIETAKO EHBILDUKO ALKATE ETA
HAUTETSIEIEN IZENEAN. URDIAIN

Edozein hauteskunde prozesu arruntaren inguruan bozero ofizialek "demokraziaren festaz" hitz egiten digute.

Demokrazia herriari hitza eta erabakia egunero ematea da, ez lau urtetik behin soilik.

Garrantzitsuak izanik ere, ohiko hauteskundeetan guk ez dugu festa batek sortzen digun zirrararik inoiz sentitu. Datorren igandean herritik herrira sortutako GED ekimenak ariketa ezin demokratikoagoan parte hartzera gonbidatu gaitu.

Gure herrietan herri konsultak deituak daude eta guk ilusioz parte hartuko dugu.

Gainera baietz bozkatzeko dugu Euskal Herri librea eraiki nahi dugulako non jendartea zoriontsua izango den.

Badakigulako gehiengo handiarendako erabaki hobeak hartzeko gai garela, ez dugulako menpekoak izan nahi eta gurea herri bideragarria delako sozioekonomikoki.

Horregatik guztiagatik datorren igandean demokraziarendako festa handian parte hartzera eta baietz bozkatzera animatu nahi dugu jendea.



Arbizuko hondakindegia.

Mank-en aurrekontua inbertsioek bikoiztu dute

Sakanako Mankomunitatearen aurrekontua joan den urteko 3.673.181,7 euroetatik 6.756.035,2 eurotara pasa da. Hondakindegia zati baten itxiera, konpost plantaren eraikuntza, ur sareak berri eta luzatzea dira egiten diren inbertsioak

HARA ZER DIEN

EMAKUMEEN BILGUNEA

Udarekin batera

Udarekin batera eraso sexisten kezka ere etortzen zaigu. Erakundeek eta talde sozialek eraso sexisten kontrako "prebentzioarako eta aurre egiteko protokoloak" prestatzen dituzte.

"Indarkeria matxista" esaten dugunean zer ulertzen dugun, eraso bat ikusten dugunean zer egin behar dugun, erakundeek emakumeari harrera emateko zer egingo duten; indarkeriaren kontra zer egin behar duten mutilek eta gizonek; eta zer egin behar dugun emakume eta neskek. Hau dena agertuko da protokolo hauetan.

Protokoloak eta "ezetza beti da ezetz" esaldia ezagutzen ditugu, eta aurten ere ikusiko duguna: "Zuen ezetza gurea ere bada". Baina galdera ondokoa da: hau dena eginda eta ezagututa, barneratua dugu? Kontuan hartzen dugu gure eguneroko bizitzan? Nik

ezezko erantzuna emango nuke, oso pertsona gutxik pentsatu dutelako zer egiten duten indarkeria matxista mantentzeko baita ezabatzeko ere zer egin behar duten. Denok ezagutzen ditugu gure eskubideak, gauean lasai etxera joateko eskubidea barne, baina praktikan jartzeko, eskubideak bizitzeko ezagutza baino gehiago behar dugu. Nahiz eta erakundeek, profesionalek edo adituek arlo honetan lan egin, pairatzen dugulako gu gara indarkeria matxista ezagutzen dugunak; beraz, erantzuna eman ahal diogunak gu garela uste osoa izan behar dugu.

Gure burua defendatzera eta, sare bat lortuz emakumeok elkar zaintzera prestatu behar dugu gure burua. Hau elkartasuna da, konplizitate eta segurtasuna barnebiltzen dituen auto-defentsa-feminista.

(Osorik www.guaixe.eus).

SAKANA

Sakanako Mankomunitateko buru Aitor Karasatorre Mugaritzak esan digunez, "zerbitzuen mantentzea ohiko aurrekontuarekin. Aldaketa nabarmenena izan da inbertsioetan, bikoiztu egin direla". Karasatorrek azaldu duenez, Arbizuko hondakindegian egitekoa zen inbertsio bat berreskuratu da eta horrekin batera Nafarroako Gobernuaren Toki Azpiegitura Planean sartu diren lanak daude.

Europak aginduta hondakindegia itxi egin behar dira. Mank-ek Arbizuko hondakindegia zati bat itxeko proiektua 2011n onartu zuen, baina Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza faltak orain arte lanak egin ezin izatea ekarri du. Lanak aurten despeditzea zen asmoa, baina tramitazioa luzatu denez, agorrilean edo irailean hasiko dira lan horiek eta 2018 hasieran despedituko dira. Euri ura ez sartzeko eta lixibiatuak ez sartzeko lamina bat jartzean datza

lana. Horrekin batera, arriskuak ez diren industria hondakinak hartzeko beste toki bat prestatuko da hondakindegian. Zortzi urtez ibarreko enpresei bertan zerbitzua eman nahi zaio horrela.

Konpost planta

Itxi behar den hondakindegia gainean konpost planta egitekoa zen Mank. Baina lurra egonkorra ez denez, zimentazio lan handiak eskatzen zituen eta proiektua garestitzen zuen. Aukerak aztertzen, azkenik, ibarreko erakundeak Arbizuko Udalarekin hitzarmena itxi du eta transferentzia eraikinaren atzean egiten da konpost planta, Arbizuko herri lurretan. Bi erakundeek hitzarmena sinatu dute eta horren arabera Mank-ek hainbat urtez hura erabiltzeko aukera izanen du. Horregatik, dagokion tasa pagatu beharko dio Arbizuko Udalari. Konpost plantaren lan guztiak Nafarroako Hondakinen Partzuergoaren

eta Toki Azpiegitura Planaren bidez ordainduko dira, osorik. Konpost plantaren lanak heldu den urtean despedituta egonen dira. Sakanako materia organiko bertan kudeatuko da eta sortutako konposta han banatuko da.

Plan horretan ere Altsasuko eta Ziordiko berdeguneak zeuden. Altsasuko aurreikusi baino handiagoa izanen da partzuergoak bere gain hartu duela eta aurrekontua 80.000 eurotik 200.000era pasa delako. Planak Iribasdik Irurtzunera doan ur sareko zatiak berritzea eta Urdalurko ur sarea Ihabardik Irurtzunera luzatzeko laguntzak jaso ditu Mank-ek.

Bestalde, transferentzia plantak ez du aterik eta han pilatutako plastikoak haizeak eramaten ditu. Hori eragozteko partzuergoak atea jartzea pagatuko du. Han pilatutako hondakinak Sakanatik kanpo eramaten dira kamioietan tratatzera.



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com



Acrylcolor
SISTEMA BERRIA
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



Lizarragan hiru festa egun

San Adrian festak bihar hasi eta etzidamu despedituko dira Lizarragan. Larunbatean mendiko ermitara igoko dira eta han hasiko da ospakizuna. Egitarauan, zortzikoa, 2016an jaiotakoei zapia ematea, bazkari-afariak eta, klasiko bat, Joselu Anaiak taldearen dantzaldia. Festa giro ederreko osagarri guztiekin, haiez gozatzeko gonbidapena luzatu dute.

GARAGARRILAK 17, LARUNBATA

10:30 Ezkilen errepikarekin batera San Adrianera iguera.

13:00 Meza mendian.

17:30 Dantzaldia Amalur taldearekin.

18:30 Menditik jaitsiera.

19:00 Auzatea alkatearen etxean.

20:00 Lizarragako zortziko dantza plazan.
Eta 2016an jaiotakoei festetako zapia ematea.

22:00 Herri afaria frontoian.

00:00 Dantzaldia Iratzar taldearekin.

GARAGARRILAK 18, IGANDEA

11:30 Amalur taldearekin kalejira.

12:00 Haurrendako altxorraren bila jolasa

13:15 Herri meza.

14:00 Amalur taldearekin kalejira.

17:00 Bordetxe abere zirkua.

19:00 Auzatea herriko plazan.

19:30-21:30 Dantzaldia Iratzar taldearekin.

GARAGARRILAK 19, ASTELEHENA

11:00 Gosaria, plazan.
Goizean Iñaki Bizkai akordeoilaria giroa alaitzen.

15:00 Kuadrilen bazkaria.
Paella jate autogestionatua.

17:00-19:00 Haur eta familiendako jolasak.
Dindaia fundazioa.

19:00 Auzatea plazan eta dantzaldia.
Joselu Anaiak taldearekin.

21:00 Herri afaria.
Ohitura den bezala herriko plazan.

23:30 Dantzaldia.
Joselu Anaiak taldearekin.



FRANCIS IRIGOIEN OSTIZA

Trinitateak elkartuta

Bakaikuarrak eta iturmendiarrak Santa Marina ermitan elkartu ziren igandean. Goizter mugitu ziren mendira. Mezaren ondoren, plazan, musikak alaitutako auzatea izan zen. Bazkaldu ondoren, herrirako bidea hartu zuten. Aurten Iturmendiri zegokion festaren antolakuntza eta, beraz, han despeditu zen ospakizuna, dantzaldiarekin.



Ermitan inguben bendatu ta dantzatu zebien asteartien.

San Adrianen itzelien elkartuko die etxarriarrak

Asteartean patroaiaren eguna, San Kiriko, ospatu ondoren, etxarriarrek San Adrian eguna dute gaur

ETXARRI ARANATZ

Festa einnen debie etxarriarrek gaurkuan. Udal ordezkariak etxajube piztu eta beheko basuako bidie hartuko debie. Etxe handiye eta San Adrian banatzen ttubien bost km-ek ibili ta gio han fritada prest yonen da. Haragi gixatube eta harren saldakin egindako zopa eskainiko dau udalak. Ta aurreneko tri-pako zulue berdindu ta gio ardo kupelak zabalduko ttubie. Alkohola yan nehi ez denandako aukera de yonen da. Eguerdien meza izenen da eta handik atia-ta dantzayen saie.

Biyertien, bazkaiek prestatze-ko, makina bat su piztuko die. Han erretako haragiye, eta biotutako eltzekuek mahire hiruten pasako die. Majo bazkaldu ta gio, sei terdiyek aldia, txistulaiek mehis-mehi pasako die ta jota ta porrusaldak dantzatuko ttubie animoso denak. Zazpiten herrieko bidie hasi aurretik Gernikako Arbola kantatu eta herrie kalejira luze-luzien bueltatuko die etxarriarrak. Gauerdieko herriyen izenen die. Kioskuen Trikidantzek dantzaldiye eskeiniko dau, 20:00etatik 21:00etara eta 22:30etik 2:30era.

Unibertsitaterako sarbide probak denek gainditu dituzte

Joan den astean egin ziren unibertsitaterako sarbide probak, selektibitatea. Altsasu institutuko 45 ikaslek egin zituzten haiek eta denek gainditu dituzte. Bai D ereduak ikasi zuten 41 ikasleek, bai A ereduak 4ak ere. Altsasun batxilergoa ikasi eta gainditu duten ikasleen kopurua 49 da, probara joandakoak baino lau gehiago.

Autodefentsa feministako tailerra hartuko du Altsasuk

Nafar Lansarek, Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin elkarlanean, autodefentsa feministako tailerrak antolatuko dituzte. Tailerrak Nafar Lansarek antolatutako autodefentsa feminista ikastaroko 24 ikasleek emanen dituzte. Altsasukoa larunbatean izanen da, 10:00etatik 19:00etara. Defentsa pertsonala eta eskubideak erakutsiko dira.

Herri-lurrei buruzko uda-ikastaroa izanen da Lakuntzan

Nafarroako Unibertsitate Publikoak antolatutako uda-ikastaroen artean herri-lurrei eta herri-basoei buruzkoa dago. Hilaren 27an eta 28an, asteartean eta asteazkenean, izanen da, kultur etxean. Baina Aralarrera irteera ere izanen da, besteak beste, Patxi Xabier Razkinek gidatuta. Ikastaroan izena emateko: www.cursosveranoupna.com/cursos

Zumaia ezagutzeko irteera antolatu du Arakil Kulturak

Hilaren 24an izanen da. Autobusa 8:30ean abiatuko da. Flichaz ezagutzeko itsasontzi bidaia, bisita gidatua, bazkaria eta arratsalde librean izanen dituzte joaten direnek. Izena udaletxean, 948 500 101 edo 634 584 226 telefonoan egin daiteke astelehenera arte. Erroldatutako helduek 27 euro pagatu behar dute, haurrek 20. Bestela, 32 eta 22.

Artzain Egunera hurbiltzeko jardunaldia

Urteroko hitzorduaren aurretik festan egiten diren jardueretara hurbiltzeko ekitaldiz betetako asteburua antolatu du Aralar Mendi elkarteak. Gainera, bere ordezkariak Nafarroako Gobernuak emandako aitortza jasoko dute larunbatean

UHARTE ARAKIL

Agorrileko azkeneko igandean, 27an, Artzain Eguna bere 50. edizioa beteko du. Urteurren borobila. Aralar Mendi elkarteak mende erdia egingen du artzaintzaren eta haren ohituren sustapenean eta zabalkundearen.

Eta eginkizun horretan Artzain Eguna ezinbesteko lana egiten du gastronomiaren eta artzaintzaren ohituren elementu tipikoen mantentzean. Latxa ardiaren esnez egindako gazta lehiaketak lortutako sona eta oihartzuna aipagarriak dira.

Urteurrena dela eta, antolatzailleak hura "ospatu eta mende erdian Aralar Mendiko kideek eta uharterek egindako lana handia aitortzeko" beharreen sentitu dira. Jardunaldiak antolatu dira. Guztien laguntza eskertu nahi dugu". Horregatik, asteburuan Artzain Egunean egiten diren jardueretara hurbiltzeko jardunaldia antolatu dute. Jardunaldiak honako izenburua dute: artzain eskuz egina. Probatu nahi?

Aitortza

Aralar Mendi elkarteak Nafarroako Gobernuaren Carlos III.a Noblearen Gurutzea domina jasoko du bihar. Elkarteak Artzain Egunaren antolakuntzan



Artzain-txakurren lehiaketako parte-hartzaileak. ARTXIBOA

egindako lana aitortu nahi du horrela gobernuak. Zehazki artzainen tradizioak eta produktuak sustatzen eta zabalitzen emandako 50 urteak. Dominak "euren jarduera esparru zehatzetik foru erkidegoaren garapenari, proiektioari eta ospeari ekarpena egin dioten" pertsona eta erakundeek lana aitortzea du helburu.

LARUNBATA 17

17:00 Ardi latxari buruzko azalpena. Ardiak jetzi.

18:00 Kaikua ezagutzea. Gaztagintza.
19:30 Gazta dastaketa herrikoia. Herrian

IGANDEA 18

11:00 Euskal artzain-txakurren trebakuntza.
12:30 Ardi-moztaileen lana. Artilearen erabilera.
14:00 Ardiki on bat prestatzeko trikimailuak. Dastaketa. Futbol-zelaian.

Udarako eskaintza egin du Sakanako AEK-k

Uda partean ibarretik mugitu gabe euskara ikasteko eta hobetzeko aukera eskaintzen du AEK-k

SAKANA

Ez duzu ahaztuko lelopean, Sakanako AEK-k udarako ikastaro eskaintza egin du. Euskara Gaitasun Agiria (EGA) atera nahi dutenek azterketa prestatzeko aukera izanen dute Sakanako

AEK-n. 80 orduko ikastaro trinkoa antolatu du garilerako. Horretaz aparte, autoikaskuntzarako aukera ere izanen da hurrengo bi hilabeteetan.

Batean edo bestean izena eman nahi duenak hilaren 27ra arteko

epea du izena emateko. Horretarako Altsasun dagoen Itsasi euskaltegitik pasa daiteke, edo bestela, 948 468 258 telefonora hots egin edo sakana@ae.k.eus e-postara idatzi.

AEK-k duen barnetegi eskaintza zabalaren barruan, Deba eta Etxarri Aranatz arteko bizikleta barnetegi ibiltaria dago. 15 eguneko barnetegia da, garilaren 29tik agorrilaren 12ra izanen da. Hartan izena emateko hasi baino 11 egun lehenagora arte izena eman daiteke.



Olatzagutiko ezkil-dorrea.

Nafarroako ezquila-joleen topaketa izanen da bihar

Artaxoari lekukoa hartu eta Nafarroako topaketaren bigarren edizioa hartuko du

OLATZAGUTIA

Elizetako kanpaiak jotzen dituztenen topaleku bihurtuko da Olatzagutia. Euren artean jotzeko moduak partekatu eta sendetasun eguna pasatzeko antolatu dute topaketa. Jakina, haien jarduna entzun egingen da. Eguerdia aurretik izanen da, Ziordira eta Urbasara begiratzen duten bi ezquila handiak eta Altsasura begira dauden bi txikiak jotzen dituztenean. 35 bat ezquila-jole nafar elkartuko dira topaketan, tartean Arruazu, Lakuntza, Iturmendi, Urdiain, Altsasu eta Olatzagutia berekoak. Jardunaldiak balioko du duela urte batzuk birgaldatu zen Santa Ana ezquila bataiatzeko M^a Camino Santesteban izanen da ama-pontekoa eta Gerardo Lopez de Goikoetxea aita-pontekoa.

Herriko ezquila-jole taldeak laukote batek osatzen du: Anjel Herrerok, Orestes Lacallek, Je-

sus Solak eta Javier Arguelles. Azken hori gainontzekoek ezin dutenean aritzen da.

EGITARAUA

10:30 Gosaria, Vicente Argomaniz plazan.
11:30ean Gonbidatueta ezquila-jole batzuk errepika joko dute.
12:15ean Koldo Arteagaren hitzaldia, kultur etxean.
12:45ean Elizarainoko desfilea erraldoi eta buruhandien konpart sarekin eta txistulari eta gaiteroekin. Ondoren, Pako Beloki apaizaren ongi etorria, Santa Ana ezkilaren bataioa eta aureskua.
13:30ean Pintxoak ezkaratzean.
14:00 Poteoa taberna eta elkarteetan.
15:00 Bazkaria, Vicente Argomaniz plazan.



Hijos de Goicoetxea, S.A.

EDARI
BANATZAILLEA

Egizu topa festetan!

Geltoki auzoa 11 · Altsasu
948 467 317 · 696 979 279
hijosdegoikoetxea@yahoo.es



"Margolariek" argazkia atera zuten murala egin eta gero.

Lehendik urrunduak, dispertsatuak orain

Altsasuko hiru gazteak dispertsatu eta espetxerik lekualdatu dituzte 7 hilabete preso egin dituztenean. Oihan Navalcarneron dago, Adur Aranjuezen eta Jokin Estremeran. Dispertsioa salatzen manifestazio zaratatsua egin zen igandean

ALTSASU

Ostiralean, Oihanek etxera hots egin eta espetxerik aldatu behar zutela gaztigatu zituen gurasoak. Larunbatean Adur izan zen gurasoak hots egin zituena. Astelehenean, azkenik, Jokinen jakinarazpena jaso zuten. Hiru gazteak Soto del Real espetxetik beste hiru kartzelatarara lekualdatzeak bidaiak ordu bat luzatzea ekarri dutela nabarmendu dute gurasoek. "Bisitaldiak garestitzen eta zailtzen dituelarik, bai familiei baita abokatuari. Eta semei eragiten die zerotik hasita berriz guztia ezagutzen: espetxe berriaren funtzionamendua, funtzionarioak, ordutegiak, beste presoak..."

Gertaera salatzen 2.000 pertsonatik gora manifestazio zaratatsua egin zuten Altsasun igandean. Akaberan gaztigatu zutenek, "gure lagunek Madrildik azken bi asteetan jasan duten zigor zaparradak gu guztiok munitu gaitu". Gogorarazi zutenek, "munitu honen aurrean sortutako elkartasun uholdea, ekimen eta mobilizazio tsunamiak eta milaka pertsonen erantzunak, egoera honen sortzaileei zuzen iritsi zaiela. Zartakoa sumatu dute. Eta honi erantzuteko isun, identifikazio, kontrolak, eta abar abiarazi dituzte". Haiek gelditzea eta isiltzea ez dutela lortuko gaineratu zuten, "munitu" salatzearekin batera.

7 hilabete

Herenegun 7 hilabete bete ziren hiru gazte altsasuarrak preso daudela. Altsasuko Gurasoak hainbat hautetsirekin batea kontzentrazioa egin zuten Iruñeko Foruen monumentuan, goizean.

Arratsaldean, berriz, Iortia kultur guneko zabalgunean jarria zegoen hitzordua. Handik hiru ordu laurdenetan pasa ziren guztiok eskuak pinturan busti eta #Altsasukoak aske zioen murala eskuarekin osatzeko aukera izan zuten. Denendako auzatea egon zen ere. 7. hilabeteko ekimena despeditzeko zeuden guztiak elkartu eta talde argazkia egin zuten, guztiak ere eskuak gora zitu zutela.

Karasatorrek Mank-eko presidentzia utziko du

EH Bilduk jakinarazi duenez, aurki utziko du kargua eta haren erreleboa aukeratzeko prozesua abiarazi du

SAKANA

EH Bilduk jakinarazi duenez, "orain arte Mankomunitatearen lehendakari izan den Aitor Karasatorre Muguruzaren erreleboa hautatzeko barne prozesua martxan" jarri du. Karasatorre 6

urtez izan da buru eta koalizioak aurreratu duenez, "datozen asteotan egingen den batzarrean utziko du postua, berak horrela eskatuta". EH Bilduk nabarmendu du "Karasatorreren lan taldeak 6 urtetan egindako lan gogorra.

2011tik 2015ra, aldaketa izan zen gakoak, Mank-ek eskeintzen dituen zerbitzuak hobetuz eta egitasmo berritzaileak proposatuz". 2015etik hona, "hasitako aldatetan sakontzeko lana egin du, besteak beste, Plan Estrategikoko ondorioak aplikatuz".

EH Bilduk dio Tokiko Maparen berrantolaketaren barruan, hurrengo 2 urtetan Mank-ek "bere etorkizuna eta eskeintzen dituen zerbitzuei heldu beharko diela, planteatuko diren berrikuntza eta erronkei erantzunez".



Parlamentuko mahai-kideak.

Parlamentuko Mahaia Altsasun elkartuko da

Azaroaren 21ean etortzekoak ziren, ferien ondorengo eta gero atzeratu zuten

ALTSASU

Nafarroako Parlamentuko Mahaia eta Eledunen Batzarra astelehenean Altsasun elkartuko da. Bilera Altsasun egitearen aldeko botoa eman zuten Ainhoa Aznarez Igarza lehendakariak, Unai Hualde Iglesias lehen lehendakariordeak eta Maiorga Ramirez Erro lehen idazkariak; aurkakoa, berriz, Alberto Catalan Higuera bigarren lehendakariordeak eta Oscar Arizcuren Pola bigarren idazkariak. Eledunen Batzarren bilkuran, UPN, PSN eta PPNren ordezkariak eskatu zuten deialdia geroz geroz. Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Duguren ordezkariak aurka agertu ziren, eta I-Eren ordezkaria Mahaiaren erabakiak zer erabakitzen zuten, horrexen alde agertu zen.

Nafarroako Parlamentuko Mahaia eta Bozeramaileen Batzardea astelehenero elkartzeko da eta parlamentuko asteko jarduna erabakitzen du. Ondoren, bozeramaileek gaurkotazunezko gaien inguruko balorazioa egiten dute. Parlamentuaren Iruñeko egoitza utzi eta Nafarroako herrietan barna bilerak eginez, erakundea nafarrei gerturatu nahi diete. Unai Hualde Iglesias da bileran izanen denetako bat.

Aralarko santutegian Corpus Christi eguna ospatuko da

Aralarko santutegian Corpus Christi eguna ospatzeko meza nagusia izanen da 12:30ean. Elizkizunaren ondoren, hala nahi duenak, aingeruaren irudia gurtzeko aukera izanen du. Ondoren santutegitik Trinitateko ermitaraino prozesioan joanen dira. Lakuntzan festa eguna da izanen da eta Arbizon lorez apaindutako aldareak jarri dira.

Herriaren izen bakarra Hiriberri Arakil da

Hiriberriko Kontzejuak hala eskatuta, Nafarroako Gobernuak herenegungo bilkuran herriaren izen aldaketa onartu zuen. Orain arte Hiriberri/Villanueva (Arakil) zen izendapen ofiziala eta hemendik aurrera Hiriberri Arakil izanen da. Jose Luis Legarrak, kontzeju presidentea azaldu digunez, Yolanda Barcina Angulo presidente zela eskaera bera egin zuten, "baina lege kontuak aipatuta atzera bota zuten". Euskaltzaindiaren oniritziarekin hartu da erabakia.

Legarrak bi arrazoi eman dizkigu herriaren izendapen aldaketa eskatzeko. Lehenik, "euskarazko izendapena berreskuratzea, aurretik eman zen prozesu bati buelta emanez". Bestetik, "arazoak saihesteko". Legarrak esan digunez, Arakigo eta Aezkoako herrien nahasketak dokumentu pertsonal eta administratibo ugari Pirinio magalean bukatzea ekartzen zuten. Eta haiek jasotzeko atzerapen handia izaten zuten.

Altsasuko gazte ekintzetan oraindik plazak daude

Altsasuko Udaleko Gazteria Zerbitzuak udarako hainbat eskaintza egin ditu eta jakinarazi du Intxostiapuntako gazte ekintzetan plaza libreak daudela. Zehazki, hauetan: udalekua eta kanpaldia (garilak 10-21, 10:00-13:00), zaldi irteera (garilak 12, 16:00), hiri-arte-graffitia (garilak 17-20, 11:00-14:00) eta hondartzara irteera (garilak 27, 10:00-15:00).

Sunsundeguiko inbertsio plana ezin adostu

Zuzendaritzak proposatu du inbertsioak egitearekin batera langileek, besteak beste ordu gehiago sartzea. Baina ez enpresa batzordearen gehiengoak ezta akziodunek ere ez dute zuzendaritzaren proposamena onartu

ALTSASU

Sunsundeguiko lantegia merkatuaren beharretara egokitu, azpiegiturak berri eta ekoizpena urteko 450 autobusen ekoizpenetik 600era pasatzeko plana zehazten aritu da enpresako zuzendaritza. 4,5 eta 6 milioi euro arteko inbertsioa egiteko Sodena enpresa publikoaren laguntza luke Sunsundegui.

Zuzendaritzak bere inbertsioa plana langileek hartu beharreko konpromisoekin lotu du. Inbertsioa amortizatzeko hurrengo zazpi urteetan urtero 6 egun gehiago lan egitea proposatu die. Horren truke langileek 650 euroko konpentsazioa jasoko lukete. Errentagarritasunaren igoerarekin lotutako ordainketa bat ere aurrekusten da, soldatak 1.200 eurotan handituko lukeena. Zazpi urteren buruan aparteko egun horiek desagertu ko liriteke.

UGT sindikatuak (4 ordezkar) zuzendaritzaren proposamenari oniritzia eman dio. Gaineratu du enpresa erreskatatu zenetik akzioen balioak 2,5 gora egin duela. Baina enpresa batzordean gehiengoa duten ELAk (3 ordezkar) eta LABek (2 ordezkar) ez diote oniritzirik eman. Ezezko horri enpresaren %49aren jabetza duten 135 akziodunen ezezkoa batu zaie. Astelehenean 110k bozketa egin zuten eta 73k zuzendaritzaren kontrako botoa eman zuten eta 37k aldekoa.

Iritziak

Enpresa batzordean gehiengoa duten bi sindikatuek gogor arazi dute egungo enpresa eredia ezarri zenean zuzendaritza taldea akzioen %51ren jabe egin zela eta lan baldintzen okertzea egon zela langileendako.

Egungo egoeraren aurrean ELAtik nabarmendu dutenez, "zuzendaritzak inbertsioak egin nahi dituen bakoitzean langileei



Sunsundegui Madrilgo azokan.

LAN BALDINTZAK OKERTZEN EZ DIREN BITARTEAN ELA ETA LAB NEGOZIATZEKO PREST DAUDE

gehiago lan egiteko" eskatzen diela.

ELA sindikatuko ordezkariek nabarmendu dute langileen artean "desilusioa eta etsipena" dagoela, "zuzendaritzak enpresaren funtzionamendu egokia bermatu beharrean bere langile sistemarekin erakunde batzuk eskertzen ari delako". Enpresak "xantaia saiakerak" baztertu eta enpresa batzordearekin negoziatzea eskatu du ELAk. Euren hitz egiteko jarrera berretsi dute. Langileei eurekin antolatze eskatu diete.

LAB sindikatuak, lehenik, zehaztu du akziodunen bozketa ez-loteslea izan zela. "Baina eztabaida hori ez akziodunena soilik, langile guztiena baizik". Zuzendaritzaren planean jasotzen direnak "prekarietatea jasaten ari den langileria eragiten diola" gaineratu du. LABek en-

presaren honako argazkia egin du: "nominen ordainketan atzerapenak daude, behin-behinekotasuna %41ekoa da, hau da, 333 langileetatik 137 daude horrela, kontratatze eta barne sustapenerako garaian diskriminazio irizpidideak daudela, gehiegizko aparteko orduak, lan eskala bikoitza, eros-ahalmenaren galera..."

Sunsundeguin egin beharreko inbertsioak "ezinbestekoak" direla uste dute sindikatu abertzalean. Baina "ezin dira xantaiaren eta inposizioaren tresna bihurtu. Sunsundeguin garai berri bat zabaltzeko garaia da. Azken urteetan galdutako esku-bideak berreskuratzeko, egungo kutunkiaren aurrean aukera berdintasuna egonen dena eta 2013an bideragarritasun planean jasotako inbertsioak egiten direna".

Enpresako zuzendaritzak lantegiko oholetan jarri dituen oharretan jartzen duenez, langile-riaren gehiengoa "lantegiak bizi duen une erabakiorraz ez da kontziente" ELA eta LAB sindikatuak lantegiaren etorkizunari buruzko "ikuspegi irreal" ematea leporatu die.



Argazkioinaxxx. ARGAZKIJABEAXXX

Ekonomia sozialeko enpresak bulkatzeko elkarlana

Helburu horrekin hitzarmena sinatu dute Sakanako Garapen Agentziak eta ANEL elkarteak

SAKANA

Nafarroako Gizarte Ekonomia Enpresen elkarteak (ANEL) lehendakari Ignacio Ugaldek eta Sakanako Garapen Agentziako lehendakari Aitor Karasatorrek lankidetzak hitzarmena sinatu zuten asteartean. Haren helburua da bi erakundeek elkarrekin Sakanan ekonomia sozialeko ekimenak lantzea, ibarrean enplegua sortu eta hari eusteko helburuz.

Horretarako, Karasatorrek "beharrezkotzat" jo du ekonomia soziala Sakanan bultzatzea. "Enplegu jasagarria sortzea da Plan Estrategikoaren helburu nagusia, eta krisian, ekonomia sozialak erakutsi du oso eredu eraginkorra dela lurraldeari lotutako enpleguak sortu eta haiei eusteko. Horregatik, sendo uste dugu ekonomia sozialeko elkarteak aliatu estrategikoak direla planarekin partekatutako helburuak lortzeko".

Ugaldek azpimarratu du ANELen ildo estrategikoetako bat dela tokiko eragileekiko lankidetzak bultzatzea, denen artean "garapen jasagarriagoa eta lurraldeari dagokionez orekatutagoa" lortzeko. Hitzarmenaren helburua da, zehazki, tresnak ematea eta pertsonak gaitzea kooperatibak eta lan-sozietateak sortzeko, "enplegu iraunkorra eta kalitatezkoa sortu eta ibarreko enpresa-ehuna dinamizatzeko aldera".

Hitzarmenean aurreikusitako ekintzen artean, ANELek hainbat bilera antolatuko ditu zenbait

gaiei buruzko informazioa emateko: ekonomia sozialeko enpresa-eredua, ekintzaitza eta kooperatiba eta lan-sozietateen sorrera. Bileren horiek ekintzaitzei, udal teknikariari, aholkulariari, finantza-erakundeei eta hainbat eragilei zuzenduta daude. Era berean, aholku emango die ibarreko ekintzaitzei, banaka nahiz taldeka.

Bestalde, ANEL Ekintzaileen Kooperatibako kide izan daitezke enpresa abian jarri aurretik euren negozio-eredua modu errealean testatu nahi dutenek. Ekimen berritzaile horrek, bestalde, aukera ematen die kooperatibismoaren egunerokoa ezagutzeko eta enpresa-kudeaketan gaitzeko. Aparte, Ekonomia Sozialeko Planean eta ANELen Partaidetza Lidergo Programan parte hartzeko aukera eskainiko da.

Agentziak, bere aldetik, eskualdeko egoera ekonomikoaren eta baliabide nahiz behar espezifikoen inguruko ezagutza partekatzearekin batera tokiko eragileei informazioa emanen die. Bestalde, ANELek aipatutako ekintzak aurrera ateratzeko, Agentziak haien esku jarriko ditu lan egiteko gune bat eta beharrezko materialak. Era berean, Agentziak ekintzaitza eta ekonomia sozialaren gaitzearen sentsibilizazio nahiz informazio jarduerak egingen ditu. Bertako aktoreekin batera ekonomia sozialeko proiektuak identifikatu, dinamizatu eta garatzeko laguntza eskainiko du.

GRUP GK

KOMUNIKAZIOA

Komunikazioa • Foru plaza, 23-1.

(Garaia)

948 564 275 | 948 562 107
gk@gkomunikazioa.eus

"Oso maitatua sentitu naiz Sakanan"

AITOR ZUBIETA PILOTARIA

PILOTA Belauneko arazoak ezin gaindituta, Etxarriko pilotariak erretiratuko dela adierazi zuen asteartean Iruñean, Fernando Vidarte eta Aspeko pilotariez lagunduta

Belauneko arazoak ezin gaindituta, erretiroa hartzea erabaki du Aitor Zubietak. Berarekin egon ginen erabakiaren berri eman zuen Iruñeko prentsaurerko jendetsuaren ondoren.

Nola sentitzen zara zure agurraren egun honetan?

Pentsatuta neukan prentsaurerkoan zer esan nezakeen eta tiradan esango nuela. Baina tentsazio asko nituen eta oso gogorra egin zait. Eskerrak emate-rakoan irudi asko etorri zaizkit, bizi osoko oroitzapenak. Hunkitu naiz. Ahal den bezala aritu naiz, egia esan.

Noiz hartu zenuen erretiroaren behin betiko erabakia?

Uste dut karrera ona egin dudala. Goi goian ibili naiz, ongi sentitu naiz... baina lan asko egin behar izan dut lesioak dirrela eta. Belaunetan lau operazio fuerte izan ditut eta mikrooperazio deitzen diren horietatik asko. Beti bueltatu naiz goi mailara eta beti ibili naiz topera lehiatzen. Baina finalaren ondoren handik 4 hilabetera Bermeon izandako lesioak belauna txikitu zidan erabat. Hor-tik aurrera operazio pila bat pasatu ditut, mila tratamendu, mediku, mila lekutan ibili naiz...



Aitor Zubietak Fernando Vidarteren babesa izan zuen prentsaureraren. ASPE

denetatik egin didate. Hasieratik esan zidaten oso itxura txarra zuela honek. Nik argi nuen azkeneko medikuak ezetza eman arte saiaturiko nintzela, pilota nire bizia eta ametsa izan delako. Baina informe guztiek gauza bera zioten. Azkena duela hilabete pasa jaso nuen. Enpresarekin hitz egin nuen eta erretiratzea erabaki nuen.

Etxarriko Gure Pilota pilota eskolan irakasle jarraituko duzu?

18 urte nituenetik sartu nintzen Gure Pilotan. Azken lesioaren

ondoren denbora eskatu nion klubari, nigan zentratzeko. Etxarri-entrenadore falta dago, ikusi behar dut nola bideratu nahi dudana bizia, baina frontoian ibiliko naizela fijo, eta orain arte entrenatu ditudan mutilen jarraipena egiten jarraituko dut. Ez dut ikusten bizia frontonetik kanpo, ezinezkoa da.

Biziaren bueltak. Zuk erretiroa hartu ta Adur Lasak Asperekin sinatu berri du.

Asko poztu naiz Adurrengatik. Oso mutiko langilea da, jatorra,

eta txikitan bera entrenatu nuen. Munduko zorterik onena opa diot. Denbora gutxi barru pilotari sakandar gehiago izango ditugu profesionaletan, ziur nago. Sakanan pilotari oso politikak daude; seguru nago bateon bat gehiago aurrera pasako dela.

Zure agurrean ez duzu inor ahaztu. Denez gogoratu zara: Aspeko lan-kide guztiak, Jokin Etxaniz, Uhartre Arakilgo Aralar Mendi kluba, Carlos Navarro, Nafarroako Pilota Federazioa, familia, Asegarcako arerioak, Sakana, Etxarri Aranatz...

Esker onekoa izan beharra dago eta nire burura etorri dira guztiak. Eta ziur norbait ahaztu dudala; hala bada, mesedez sentitu dadila eskertuta. Etxarri, Sakana guztia, nola ez dut buruan izango? Oso maitatua sentitzen naiz. Ospakizun, bazkari, omenaldi guztietara begira zenbat jende etorri den... Ni pribilegiatu bat naiz. Oso maitatua sentitzen naiz Euskal Herriko txoko guztietan. Eta lesionatua egon naizenean are gehiago. Berdin da non, Bermeon edo Tuteran. Eta Sakanan izan dudan bultzada jendearekin, jendearen gertutasuna... ez dut sekula ahaztuko, kariño hori.

Asperendako urte gogorra da. Barriola, Irujok eta zuk agur esan duzue. Beste aro bat etorriko da.

Asperendako kolpe gogorra izan da. Abelena naturaltasunez datorren zerbait da, nahiz eta pena handia izan. Baina Irujo eta ni Asperen egituraren ardatzak ginen, gazte guztiarekin taldeak aurrera egiteko. Bi baja oso potente izan dira enpresarendako, baina buelta emango diote.

Senitartekoek eskertuko dute zu etxean gehiago ikustea?

Senitartekoek eta lagunak pena handia hartu dute. Badakite zenbat sufritu dudana, nire ahalegin eta saiakera guztiak. Goi goian nengoela utzi dut. Lasaitasun hori dute, ahal dudana guztia egin dudala, eta hemendik aurrera beste bizi bat dator. Duela gutxi aita izan naiz, nire biziko opari handiena. Lagunak ez dira profesionalak pilotan eta pozik bizi dira. Beraiekin egon naizenez ejenplu bera jarraituko dut. Pribilegiatu bat naiz.

Etorkizunean nondik joko duzu? Non ikusten duzu zure burua?

Ingenieritza ikasi nuen, irakasle izateko ikasketak ere baditut eta aste honetan robotikako masterra bukatuko dut, teknologia berrietan eguneratzeko. Ez dakit ingeniari edo irakasle sartuko naizen. Praktikak Etxarriko Andra Mari ikastolan oso gustura egin nituen, ongi eta eroso sentitu nintzen. Ziurrenik irakasle bidea hartuko dut.

Une honetan, zerbait gehiago eskatzen dizu barrenak?

Eskatuko nizueke esker oso oso bereziak ematea, markatuta, Sakana guztiari eta Etxarriari. Jendearengandik sentitu dudana izugarria izan da. Bultzada, animuak... oso maitatua sentitu naiz. Eta herri mailan zer esanik ez! Jendearekin dudana berotasuna, harremana... beti eskertu beharko dut. Hitzekin ezin dut egin eta ea hori markatu ahal duzuen.

"PRIBILEGIATU BAT NAIZ. JENDEAREN GERTUTASUNA, KARIÑO HORI, EZ DUT SEKULA AHAZTUKO"

Aurten, MECNA-ri esker %40a desgrabatuko duzue! Eta 150€tik gora ordaindu baduzu, %80a.

NAFARROAKO OGASUNA

GUAIXE fundazioa

MECNA

ESKA EZAZU ERRENTA AITORPENERAKO ZIURTAGIRIA: admin@guaixe.eus edo 948 564 275, Foru plaza 23, 1. solairua · Altsasu

Nafar Kirol Jolasak: Azpeitia eta Ortigosa txapeldun

PILOTA NKJ-en Kimuen 3. mailako finala irabazi du Pilotajaukuko biko altsasuarrak

Nafar Kirol Jolasen Nafarroako Pilota Txapelketako Kimuen 3. Mailako txapeldunak ditugu Joseba Ortigosa Gonzalez eta Patxi Azpeitia Lumberras. Pilotajaukukoek igandean final handia jokatu zuten Iruñako Labrit pilotalekuan, Berriozar B taldeko Huizi Murillo anaien kontra. Final estuan, 18 eta 15 gailendu ziren altsasuarrak eta trofeo polita ekarri zuten Altsasura.



Pilotajaukukoak, dominekin. UTZITAKOIA

Lopez de Zubiria eta Araña txapeldunordeak

Bestalde, txapelketa berberan, Nafar Kirol Jolasen Nafarroako Pilota Txapelketako Kadeteen 1. Mailako finala jokatu zuten Etxarri Aranazko Gure Pilotako Lopez de Zubiria eta Araña Ultzamako Torres eta Arceren kontra. 16 eta 22 irabazi zuten Torres eta Arcek.

Olaztin, txapelketak aurrera

Olaztiko San Migel elkarteak antolatutako XLVI. San Migel Pilota Txapelketak aurrera darrarai. Asteburu honetan 6. jardunaldia egonen da jokoan frontoian, 3. mailan, 2. mailan eta lehen mailan.

SASKIBALOI| Naiara Diezek Gernikan jarraituko du

Hurrengo denboraldian Lointek Gernika Bizkaia saskibaloitaldian jarraituko du Naiara Diez saskibaloitaldian jokalaritaldian altsasuarrak. Horrela, Gernikak bere kapitain eta jokalaritaldian dena taldean izaten jarraituko du.

Kapitaina

30 urte ditu saskibaloitaldian jokalaritaldian altsasuarrak eta oraindik ere sasoi betean dago, maila bikaina ematen jarraitzen du Diezek. Hegal-pibotak 4 denboraldi egin ditu Gernikan eta beste denboraldi baterako sinatu du. Taldean jarraitzea zen, hasieratik, bi aldean asmoa.

CBASKen trebatua

Altsasuko CBASK taldean trebatu zen Naiara Diez. Gazte mailara arte Altsasun aritu zen, ondoren Ardoi klubera egin zuen salto eta gero Zaragozan ibili zen, Liga Femeninan. UNB Obenasak fitxatu zuen ondoren, eta, azken urte hauetan Gernikako Lointek taldean dabil.



ASPE

Adur Lasa, Aspeko pilotaria

PILOTA Adur Lasa, Aspeko pilotari berria.

Adurrek 23 urte ditu eta Oskar Lasa, Lasa III.aren pilotariaren iloba da, atzelaria, osaba bezala. Gazte etxarriarrak ekainaren 25ean debutatuko du Asperekin, San Juan festetan murgilduta egonen den Eibarko Astelenan, Lasa IV.a izenarekin. Horrela, dinastiari jarraipena emango dio.

Irurtzungo txapela Arruazura ekarri du Bergerak

PILOTA XXVI. Irurtzun Pilota Txapelketako seniorren finala Bergerak eta Santxok irabazi zuten

Irurtzungo Trinitate festen barruan, larunbatean jokatu ziren XXV. Irurtzun Pilota Txapelketaren final handiak. Afizionatuen mailako txapelketa ezaguna, senior mailan guztira 28 bikote

eta promesetan 8 lehiatu dira, afizionatuen mailako onenak.

Hasieran promesen mailako partida jokatu zen. Canabalek eta Cordonek ez zuten aparteko arazorik izan Gil eta Garatea 22

eta 13 menpean hartzeko. Senior mailan ikusmina handia zen, Irurtzun klubeko pilotariak sailkatu zirelako seniorren mailako final handira. Iosu Bergera arruazuarra eta Santxo, batetik, eta Alberto Ongay satrustegierra eta Azanza, bestetik. Partida zirraragarrian, parez pare ibili ziren bi bikoteak baina azkenean Iosu Bergerak eta Santxok lortu zuten txapela janzte, taldekide eta arerioak 17 tantotan utzi eta gero, bildutakoan txalo artean.



Finalista guztiek talde argazkia atera zuten. IRURTZUN

Irurtzungo finalak

Irurtzungo finalak ikusgarriak izan ziren

Promesen maila

Canabal-Cordon 22
Gil-Garatea 13

Seniorren maila

Santxo-Bergera 22
Ongay-Azanza 17

Iñigo Aritza ikastolak 2017/2018 ikasturterako ondorengo profila duten langileen beharra dauka, errelebo eta behin behineko kontratuak dira:

- Haur hezkuntza gradua + ingeles titulua (B2 maila gutxienez)
- Haur eta Lehen hezkuntza gradua
- Lehen Hezkuntza gradua (3 lanpostu)
- DBH-n Lengua emango duen lizenziatua edo graduatua + irakaskuntzarako masterra (CAP) + ingeles titulua (C1).

Kasu guztietan EGA izatea ezinbestekoa da. Musika, arte ederrak eta IKT-ak baloratuko dira.

Curriculumak ekainaren 20a baino lehen curriculumak@inigoarritza.eus helbidera bidali.



Iñigo Aritza Ikastolak ZUZENDARI OROKORRERAKO deialdia egiten du onartutako hezkuntza proiektua eta kudeaketa bultzatzeko.

Betebeharrak:

- Politiko-administratiboak
- Tekniko-exekutiboak
- Zuzendaritza pedagogikoarekin elkarlana

Profila:

Lizenziatua edo graduatua honako ezagutzak dituenak:
· Kudeaketa ezagutza profesionala eta lehen tasuna hezkuntza munduan.
· EGA titulazioa

Curriculumak ekainaren 23a baino lehen zuzendaritza@inigoarritza.eus helbidera bidali.



Iratxo Botxa Txapelketa asteburuan erabakiko da

IRRISTAKETA Gaur, ostiralean, finalurreak jokatuko dira eta bihar, larunbatean, finalak, Irurtzongo Iratxo elkarteko botxategian. Txapelketan sei talde lehiatu dira eta ondokoak sailkatu dira: AHTrík Ez, Tximeleta, Desesperados eta Xabier-Migel-Joana

Botxa petanka antzeko joko tradizionala da, Irurtzunen, Iratxo elkartean bereziki, zaleak dituen. Iratxon urtero antolatzen dira txapelketak eta horietako bat, Iratxo Botxa Txapelketa, azken txanpara iritsi da. Sei talde lehiatu dira Iratxo elkarteko botxategian jokatutako txapelketan: AHTrík Ez (Mikel, Maribi eta Iñaki), Tximeleta (Pakita, Alizia eta Josune), Desesperados (Txeli, Tere eta Juanito), Xabier-Migel-Joana, Edurne-Txutxurrin-Tere eta Lirainak (Santos, Marian eta Julen).

Orain artean ligaxka jokatu eta gero, lehendabiziko lau talde onenek jokatuko dituzte, ostiral arratsaldean, finalerdiak. Hurrenez, hurren, sailkapenean, Xabier-Migel-Joana izan dira onenak (8 puntu), Tximeleta bigarrenak (6 puntu, 1,46), AHTrík Ez hirugarrenak (6 puntu, 1,05), Desesperados laugarrenak (6 puntu, 0,73), Lirainak bosga-



Botxan, Irurtzongo botxategian.

rrenak eta Edurne-Txutxurrin-Tere seigarrenak, biak bina punturekin. Ondoren, larunbatean, final handiak egon dira jokoan eta sari banaketarekin despedituko da aurtengo Iratxo Botxa Txapelketa.

Iratxo Botxa Txapelketa

Asteburuan jokatuko dira Iratxo Botxa Txapelketako finalerdiak eta finalak. Gaur, ostiralean, finalerdien txanda izanen da eta bihar, larunbatean, final handiena. Ondoren sari banaketa izango da, Iratxo elkartean bertan.

Ostiralean, finalerdiak

19:00etan:
Xabier-Migel-Joana / AHTrík Ez
20:15ean: Tximeleta / Desesperados

Larunbatean, finalak

19:30ean: 3. eta 4. postuen finala
20:30ean: Final handia.
Ondoren, sari banaketa

Sakanako Irristaketa Topaketa bihar Altsasun

IRRISTAKETA Altzania kaleak hartuko du irristalarien topaketa, bihar, larunbatean, 17:00etan

Sakanako Mankomunitateak ibarreko irristalariak bildu eta egun polita pasatzeko asmoz, Sakanako Irristaketa Topaketa antolatu du biharko, larunbateko Altsasun. 17:00etan jarri dute hitzordua, Altsasuko Altzania kalean. Asmoa Altsasutik ibilbide bat egitea eta Altzania kalean hainbat jolasekin bikain pasatzea da.

Antolaketaarako Altsasuko Udaren, Sakana Irristaketa Taldearen eta Sutegi, Etxarri Aranzat eta Uhartte Arakilgo irristaketa taldeen laguntza izan du

Mank-ek. Bestalde, irristaketa txapelketetan parte hartu nahi badute, Sakanako Irristaketa Taldeko kide izatera animatu dituzte irristalariak. Horretarako patinsakan@gmail.com helbidera idatzi beharko dute.

Sakana Patin

Irristaketa sustatzea da Sakana Irristaketa Taldearen edo Sakana Patin taldearen helburua. Halaber, taldearen asmoen artean dago ere Sakanan irristaketa-arako araudizko pista bar sortzea, egoki entrenatu ahal izateko.

Izpegi-Erratzu, mendizaleekin

MENDIA Sakanako Mendizaleak taldeak prest dauka ekaineko mendi irteera. Izpegi-Erratzu ibilbidea osatzeko asmoa dute igandean, Iratxokoek prestatutako txangoari jarraiki. Autobusa goizeko 6:30ean abiatuko da mendizaleak jasotzera. Autobusean tokirik egonez gero, 639 117 631 telefonora hots egin.



GUAIXE

Powerade Irurtzun

BTT Ostiralean 300 biker baino gehiago abiatu ziren Donostiatik, Bartzelonara iristeko asmoarekin (709 km). Tartean zegoen Irurtzun taldea (Mikel Rubio, Ruben Moral, Diego Gomez eta Iñigo Lasarte).

Bartzelonara 13. postuan iritsi zen Irurtzun (30:27:34), herrien ordezkarien mailan hirugarrena. "Asko sufritu dugu baina gustura ibili gara" adierazi du Rubiok.



IRURTZUN

ZIORDIKO TXAPELKETA

ASTEBURUKO PARTIDUAK

OSTIRALEAN

19:00 Los Suaves - Dia Ibaia (3. jardunalditik atzeratutako partida)

IGANDEAN

18:00 Ziordia - Auzomotojorik
10:00 Aralar Mendi - Los Suaves
20:00 Futsal Sakana - Dia Ibaia

I. Ziordiko Futbol Txapelketa

Aurreko atsedenaldiaren ondoren, bueltan da txapelketa

Elomendiko Kopa: Finalerdietan erori zen Zaldua

Arakilgo Zaldua taldeak ezingo du Elomendiko Kopako finala jokatuko. Finalerdietan erori da Etxarrengo taldea, Zizurren kontra 1 eta 0 galdu eta gero. Dena den, denboraldi bikaina egin du Zalduek, Elomendiko Futbol Txapelketan hirugarrena sailkatu baita.

TRIATLOIA Donibaneko Triatloitik makina bat domina Sakanara

Asteburuan jokatu da, Iruñean, XIX. Donibane Triatloia. Helduen proban David Latasa gailendu zen (1:08:01) eta Sakana Triatloi Taldeko Javier Borrega altsasuarra 17.a sailkatu zen (1:18:01).

Kategoria txikietan, Nafar Kirol Jolasetarako baliagarria zen proban, Sakana Triatloi Taldeko triatleta guztiek sekulako lana egin zuten. Benjamin mailan Ekain Imazek irabazi egin zuen, bere taldekide Alain Razkinen aurretik; kimuen mailan Hegoi Lakuntza bigarrena sailkatu zen eta haurren mailan, emakumezkoetan Nahia Imaz hirugarrena izan zen Donibanen eta gizonezkoetan, berriz, Xabier Borrega 20.a.

Emakumeen hitzordua bihar Lakuntzan

TXIRRINDULARITZA Larunbatean, 15:30ean hasiko da I. Lakuntzako Emakumeen Saria, plazatik. Eliteak, juniorrak eta kadeteak lehiatuko dira, espainiar estatuko talde onenetatik etorritakoak. Txirrindulari sakandarrek ez dute huts egingo

Aralar Txirrindulari Taldeak antolatuta, 24 urteren buruan, emakumeen txirrindularitza proba batez gozatzeko aukera izango da berriro ere Lakuntzan. Horregatik, oso pozik daude. Azaldu dutenez, espainiar estatuko guztitik etorritako taldeak lehiatuko dira bihar Lakuntzan, kadete, junior eta elite mailakoak. I. Lakuntzako Emakumeen Saria Euskaldun Zirkuiturako baliaigarria izango da.

Lasterketa berezia izango da. 15:30ean kadete mailako txirrindulariak abiatuko dira, 37 km-ko ibilbide bat osatzeko. Bestalde, elite mailako txirrindulariak 16:45ean ekingo diote bere lasterketari, 65 km-ko proba osatzeko. Eta junior mailakoak aurrekoen lasterketara gehituko dira 12,5 kilometroan, 54 km-ko lasterketa egiteko.

Aralar klubak Lakuntza hartuta bi zirkuitu prestatu ditu. Bata, Lakuntza eta Arruazu artean, 6,3 km-koa, eta, bestea,



Txirrindulari sakandar batzuk. UTZITAKOIA

Lakuntza, Arbizu, Lizarrango eta Etxarri artean, 11,3 km-koa. Zirkuitu horiek erabiliz osatuko da proba. "Helburua txirrindulariak Lakuntzatik sarritan pasatzea da, Lakuntzan bilduta dauden txirrindulari zaleak

txirrindulariak behin eta berriz ikusteko eta herrian giro polita sortzeko" adierazi dute Aralar klubetik.

Emakume sakandarrak lanera
Egun, kadete mailan Leire Maiza etxarriarra (Nafarroa Ermitagaña), Joana Irastorza etxarriarra (CAF Turnkey Engineering Women) eta Maria Beraza uhartearra (Nafarroa Ermitagaña) dabilta, junior mailan Maialen Aramendia iturmendiarra (CAF Turnkey Engineering Women) eta eliteetan Bakarne Gonzalez altsasuarra (Bolivia). Ea Lakuntzan ikusteko aukera ditugun.

Emakumeen txirrindularitza sustatzea
Lakuntzako lasterketa Nafarroako Txirrindularitza Federazioak emakumeen txirrindularitza sustatzeko antolatutako kanpainaren barruan sartzen da. Lakuntzako bigarren proba da.



Iker Mintegi, erdian, alboan Igor Arrieta eta Unai Aznar dituela. BURUNDA

Iker Mintegik kadeteen mailako palmaresa mustu du

TXIRRINDULARITZA Undianoko proba irabazi du, Igor Arrietaren eta Unai Aznarren aurretik

Burundako Quesos Albeniz taldeko Iker Mintegik mustu du kadete mailako bere palmaresa, igandean Undianoko lasterketa irabazi baitzuen. Esprint oso estuan Mintegi gailendu zitzaion Aralar klubeko Intersport Irabiako Igor Arrietari eta bere taldekide Unai Aznarri. Beraz, podium guztiz sakandarra izan genuen Undianon.

Urko Gorriti (I.I.) 8.a sailkatu zen, Aitor Alberdi (I.I.) 9.a eta Inhar Astiz (I.I.) 13.a. Irabian izan zen probako talde onena. Bestalde, Mintegi lehen urteko kadeteen sailkapeneko lehena

izan zen eta Unai Aznarrek mendiko txapelketa irabazi zuen.

Etxeberriaren erorikoa Anoetan
Junior mailako tropela Anoetan aritu zen (87 km). Ampo taldeko Aritz Urrak irabazi zuen, esprintean. Intersport Irabiako Josu Etxeberriak erorikoa izan zuen baina hala ere lasterketa 7. postuan despiditza lortu zuen. Quesos Burundako Ailetz Lasa 12.a sailkatu zen, Hodei Zia 30.a, Beñat Etxezarreta (I.I.) 32.a eta Josu Jaka (Q.A.) 62.a.

Bestalde, txikikoak Etxarri eta Villatuertan aritu ziren.

546 biker XXII. Altsasuko BTT Zeharkaldian

MENDI TXIRRINDULARITZA Iaz bihotzekoagatik zendutako txirrindulariaren emazteak moztu zuen hasierako zinta

Beroari aurre eginez, bizikleta-rekin Sakanako paraje eta txokoak ezagutzeko aukera izan zuten 22. Altsasuko Zeharkaldian izena eman zuten 546 bikerrak. Barranka Txirrindulari Taldeak ehun pertsona inguru bildu zituen antolakuntza lanetan. Ordainetan, txirrindularien esker ona jaso zuten, guztiek "antolakuntza bikaina" eta "ibilbidearen edertasuna" nabarmendu baitzituzten. Asko Altsasuko proban estreinatuta ziren, baina bazeuden 22 edizio hauetan huts egin ez duten beterrano handiak.

Omenaldiarekin hasi zen proba
Goizeko 9:00etan eman zitzaion probari hasiera. Iaz Altsasuko Zeharkaldian bihotzekoa izan zuen eta handik egun batzuetara hil zen Manuel Da Silva bikerra gogoan izan nahi zuen Barranka taldeak. Familiarekin adostuta, omenaldi txikia egin zioten: haren emazte izandako Gloriak probaren hasierako zinta moztu zuen, eta hasieran 3,5 km-ko ibilbide neutralizatua egin zuten bikerrak Altsasu inguruetan, Goierri taldeko bere taldekideak aurrean zeudela.



Giro bikaina zuten proban parte hartu zutenek. ARGAZKIJABEAXXX

Bi ibilbideren artean aukeratu zuten bikerrak: luzea, 51 km-koa eta 980 m-ko desnibelekoa, eta laburra, 41 km-koa eta 500 metroko desnibelekoa. Nobedade moduan, Etxarriko Kontzesio ermitan hornidura gune nagusia

zegoen, eta bertatik Txuixoo harrobi zaharrera iritsi ziren bikerrak. Altsasura Basoitxitik sartu ziren ibilbide motzekoak eta Dorre Txikiraino luzatu zuten ibilbidea luzekoak. Zorionez, ez zen aparteko arazorik izan.

MENDI TXIRRINDULARITZA

Xotak Alex Llamas fitxatu du

Xota hasi da hurrengo denboraldirako jokalarien plantilla indartzen. Batetik, Alex Llamas jokalaria kataluniarra fitxatu du talde berdeak.

Bestetik, azken hiru urteak Imanol Arregiren aginduetara trebatzen aritu ondoren, Raul Jimenez atezain berdea 2. mailako Betis taldean ariko da hurrengo denboraldian, Xotak utzita. Bere baja ordezkatzeko, Eduardo Filipe Sousa "Edu" atezain gaztea fitxatu du Xotak. 20 urte ditu atezain honek, Zierbena FS taldetik dator eta Imanol Arregik aspaldik jarraitzen zuen bere ibilbidea. Gutxinaka forma hartzen ari da 2017/2018ko Osasuna Xota.



Giro bikaina izan zen Iturmendiko Aitzkozar krosean. NEMESIO ETXEA

145 korrikalari Aitzkozar lasterketan

ATLETISMOA Javier Cabezón eta Mari Sol Aspurtz iruindarrak gailendu ziren proba nagusian, Raul Audikana olaztiarraren eta Ginesa Lopez altsasuarraren aurretik. Kategoria txikian 75 neska-mutiko aritu ziren eta 70 proba nagusian

Larunbat arratsaldean, berotzarrarekin, Iturmendiko Aitzkozar elkarteak eta Bakaikuko Bakarrekotxea elkarteak antolatutako Aitzkozar Lasterketa jokatu zen. Aurten Iturmendik hartu zuen proba. Hasieran kategoria txikiko lasterketak jokatu ziren eta guztira 75 neska-mutiko aritu ziren korrika.

Txikiak

Aurrebenjaminetan Eukene Apalaza eta Izaro Zelaia izan ziren azkarrenak, benjaminetan Asier Larrageta eta Helene Andueza, kimuetan Iker Caño eta Iratxe Lapuente, haurretan Luken Goikoetxea eta Veronica Caño eta kadeteetan Urtzi Galarza eta Haizea Artola. Jubeniletan, berriaz, Fermin Azkargorta eta Olga Gartzandia gailendu ziren.

Sakandar asko

Ondoren, helduen proba hasi zen, Sakanako Kopa-Lasa Kiro-lak Sarirako baliagarria zena. Iturmendi eta Bakaiku artean

prestatutako zirkuituari bi buelta emanaz, guztira 8,1 km egin zituzten proba osatu zuten 70 korrikalariak. Aitzkozarrekoa ibilbide oso gorabeheratsua da, erritmo aldaketa asko egitea eskatzen duena. Larunbateko berotzarrek ez ziren batere mesede egin gure korrikalariak, baina erronkari erantzun zioten.

Txapelak Iruñera joan ziren, Javier Cabezón (29:54) eta Marisol Aspurtz (38:49) izan baitziren azkarrenak. Bigarrenak Raul Audikana olaztiarra (30:12) eta Ginesa Lopez altsasuarra (39:02) izan ziren. Santi Galarza (33:40) eta Eki Galarza (51:53) izan ziren lehen iturmendiarrak. Primerako auzatearekin despeditu zen lasterketa.

**AITZKOZAR KROSA
SAKANAKO
KOPA-LASA KIROLAK
KOPARAKO
BALIAGARRIA DA**

Sakandarrak Aitzkozarren

Gizonak

1. J. Cabezón (Iruñea.) 29:54
2. Raul Audikana (Olaz.) 30:12
3. Felix Benjumea (Alts.) 30:31
5. Fco Gomez (Alts.) 31:40
7. Alej. Razkin (Alts.) 32:53
8. Ivan Sobredo (Alts.) 33:23
10. Santi Galarza (Itur.) 33:40
11. Alfre. Larraburu (Irrur.) 33:50
12. Igor Artieda (Etx.) 34:28
13. Urko Agirre (Itur.) 34:43
14. Haimar Agirre 34:43
15. Jon Iñaki Araña 35:12
17. Iñaki Olmos 35:19

Emakumeak

1. Marisol Aspurtz (Iruñea.) 38:49
2. Ginesa Lopez (Alts.) 39:02
3. Irati Azkargorta (Itur.) 41:11
4. Eki Galarza (Itur.) 51:53
5. Txaro Ondarra (Bak.) 54:41

*Saillkapen osoa: guaixe.eus



Gustura pasatu zuten neska-mutikoeak. MANUEL IZNAOLA

Kin-Ball: The Cracks KB garaile Irurtzunen

KIN-BALL Nafarroako Kin-Ball Txapelketa jokatu zen larunbatean Irurtzungo kiroldegian. 5 talde lehiatu ziren

Larunbatean Nafarroako Kin-Ball Txapelketa jokatu zen Irurtzunen. Bost talde lehiatu ziren: KB Iruña, Kinballdarras, The KB Bulls, KB Hoberenak eta The Cracks KB. Iruñeko eta Irurtzungo neska-mutilek osatutako taldeak ziren. Zehazki, 9 eta 15 urte bitarteko 10 neskatila eta 12 mutil lehiatu ziren, guztira. Partida bakoitzak ordu erdi inguru iraun zuen eta txapelketa lehiatu baten ondoren, The Cracks KB taldea gailendu zen, Julen Juanicorena, Noelia Senra, Naia Vazquez eta Gaizka Jimenezek osatutako taldea.

Talde lana, estrategiaz betea

Kirol kooperatiboa da Kin-Balla. Irurtzunera Manuel Iznola soin heziketa irakaslearen bitartez iritsi zen eta Atakondoa gogoz lantzen dute. Kirolariak balo-reetan hezte da helburu nagusia. Aldi berean, joko arin eta dibertigarria da. Hiru talde lehiatzen dira eta baloi erraldoia erabiltzen dute. Erabateko talde lana da; jokalariek guztiak dira garrantzitsuak. Izan ere, baloi erraldoia ezin du pertsona bakar batek mugitu; inork ezin du pasibo egon eta talde lana da. The Cracks KB izan zen onena.



AITOR MARTINEZ

Palacios laugarrena Ibardinen

AUTOMOBILISMOA II. Ibardin igoera, Nafarroako Txapelketa.

Iker Palacios (BRC Evo) 4.a sailkatu zen, bigarrena CM mailan; Iban Lopez de Goikotxea (R5) 13.a, 5.a FL mailan; Garikoitz Goñi (Clio Sport) 14.a, bigarrena A2 mailan, Mikel Mendinueta (205 GTI) 20.a, lehena R mailan eta Iñigo Zelaia (BMW 325) 26.a, 10.a FL mailan.

Igarzabal gailendu zitzaion Kataraini

MENDI LASTERKETAK Lakuntza-Aralar mendi lasterketan lehia bizia izan zuten Juanjo Igarzabalek eta Beñat Katarainek. Emakumezkoetan, Alizia Olazabalek irabazi zuen eta Aran Larrañaga bosgarrena sailkatu zen. Laburrean, Inza eta Agirre nagusitu ziren

Igandean jokatu zen Zabalarte klubak hainbat entitate eta babeslerekin antolatutako Lakuntza-Aralar mendi lasterketa. Goizeko 9:30ean abiatu ziren proba luzean (25 km eta 1.200 m desnibel positiboa) eta proba laburrean (13,3 km eta 640 m desnibel positiboa) lehiatu ziren korrikalariak, 194 korrikalari guztira. 96 korrikalarik proba luzea hautatu zuten eta 98 korrikalarik laburra. Termometroek tarteka 30 graduak ere gainditu zituzten eta horrek proba gogortu zuen.

Lakuntzatik abiatuta, Atazar igoz iritsi ziren Guardetxera. Ibilbide luzeokok Belokiko lepora, Txorrotxetara eta Unagako putzura jo zuten, ondoren Irumugarrietara, probako punturik altuenera (1.431 m) igotzeko. Handik jaitsierari ekin zitzaion, Desako bordatik eta Pagomaritik. Etxaaltxeta pasa ondoren, Arangunera igo ziren, bertatik jaitsierari berrekin eta Lakuntzako helmugara jotzeko. Ibilbide laburrekoek, aldiz, Guardetxetik Etxaaltxetara jo zuten, handik ibilbide luzearekin bat eginez.

Katarain vs Igarzabal

Proba nagusian Beñat Katarain lakuntzarrak eta Juanjo Igarzabal zumarragatarrak lehia estua izan zuten. Sarritan taldekide, arerio latzak izan ziren Lakuntzan. "Irumugarrieta biok batera igo dugu, baina Beñatek erorkoa izan du eta horrek alde ateratzea eta garaipena lortzea ahalbideratu dit" adierazi zuen Juanjo Igarzabalek helmugan. Katarain minutu pasara sartu zen (2:06:55). Etxarri Aranazko Josu Unzurrunzagak osatu zuen podiuma (2:14:17).

Emakumezkoetan Alizia Olazabal beterano iruindarrak ez zuen areriorik izan (2:35:24) eta aurreko urteko garaipena errepikatu zuen. Maialen Elia biga-



Hasieratik erritmo bizia ezarri zuten korrikalariak.

BEÑAT KATARAINEN IRUMUGARRIETAKO ERORIKOAK GARAIPENA ERRAZTU ZION IGARZABALI

rrenari lau minutu pasa atera zizkion (2:39:28) eta Ana Casares izan zen hirugarrena (2:50:23). Lehen sakandarra Arantza Larrañaga izan zen, emakumezkoetan bosgarrena (3:02:58). Lehen juniorra Ioar Tabar iruindarra (2:38:57) izan zen, Juan Larrea altsasuarren aurretik (2:40:28).

Motza

Lasterketa laburrean Imanol Inza zumarragatarra (1:07:56) eta Elixabete Agirre iruindarra (1:30:46) gailendu ziren. Sakandarre dagokienez, Haizea Ramirez de Alda laugarren emakumea izan zen (1:36:34). Estibalitz Arkauz lehen lakuntzarra izan zen (1:53:35). Kadeteetan Ander Rosado arbizuarra lehen kadetea izan zen (1:27:20) eta Ander Orabengoa olaztiarra bigarrena (1:31:36).

Sakandarrak Lakuntza Aralar proban

Luzea, gizonak

1. Igarzabal (Zum.) 2:05:48
2. Beñat Katarain (Lak.) 2:06:55
3. J. Unzurrunzaga (Etx.) 2:14:17
9. Mikel Iriarte (Arb.) 2:24:01

Luzea, emakumeak

16. A. Olazabal (Irun.) 2:35:24
56. A. Larrañaga (Uhar.) 3:02:58
71. Leire Palacios (Alts.) 3:16:24
81. E. San Martin (Etx.) 3:23:22

Motza, gizonak

1. Imanol Inza (Zum.) 1:07:56
15. Izai Mauleon (Etx.) 1:21:28
16. A. Gartzandia (Lak.) 1:22:54
25. Ander Rosado (Arb.) 1:27:20
30. Ibon Arregi (Lak.) 1:30:22

Motza, emakumeak

32. Eli Agirre (Iruñea.) 1:30:46
50. H. R. de Alda (Alts.) 1:36:34
53. M. Goikoetxea (Etx.) 1:38:21
87. Esti Arkauz (Lak.) 1:53:35

*Sailkapen osoa: guaixe.eus



Korrikalariak txalo artean iritsi ziren mugara. AITZIBER IRAGI

60 korrikalarik osatu zuten Ergako Trinitateko Igoera

MENDI LASTERKETAK Gorka Sarasibar eta Edurne Vicente izan ziren txapeldunak Erga gainean

Irurtzungo La Guan taldeak antolatutako IV. Trinitateko Igoera arrakastatsua izan zen oso. Aurreko urtean 39 korrikalarik hartu zuten parte eta aurtun 60k osatu zuten proba. Jendea poliki bildu zen Ergako igoeran, korrikalariak animatzeko. Azkarrenak Gorka Sarasibar (23:36) eta Edurne Vicente (28:30) izan ziren. Eguzkipean egindako ahaleginaren ondoren korrikalariak auzate ederrekin errekupeatu zituzten indarrak, ermitan bertan, ondoren herrira jaitsi eta Trinitateko festetan murgiltzeko.

Ergako kronoigoera

Absolutua

1. Gorka Sarasibar 23:36
2. Imanol Kañamares 24:19
3. Evaristo 24:43
4. Gaizka Bustince 25:29
5. Alatz Agirre 25:37
6. Carlos Arraiza 25:44
7. Muti 26:08
8. Txus Larunbe 26:36

*Sailkapen osoa: guaixe.eus



GUAIXE

Mila Koloreren aldeko lasterketa

Igandean, Lakuntza-Aralar lasterketa abiatu eta ordu erdira, goizeko 10:00etan, Sakana Mila Kolore elkartearen aldeko lasterketa solidarioa jokatu zen. Aurretik dortsalak salgai jarri ziren, 2 eurotan, eta handi eta txiki, plazari itzuli bat egitea zen kontua, aldi berean aipatu elkartearen aldeko diru bilketa eginez.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI. gutunak@guaixe.eus**ALTSASU Koldo Arnanz arte eskola**

Garagarriaren 18ra arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, Altsasuko lortia kultur gunean.



ALTSASU Mary Poppins musikala eskainiko du Irantzu Gonzalezen dantza eskolak. lortia kultur gunean, 18:00etan eta 20:00etan.

OSTIRALA 16**OLATZAGUTIA**

Musika eskolako ikasleek kontzertua eskainiko dute. Kultur etxean, 18:30ean.

ETXARRI ARANATZ

Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa. Kale Nagusiko 7. zenbakian, 19:00etan.

ALTSASU**Altsasukoak ASKE**

Deialdia. Udaletxe parean, 20:00etan.

ARBIZU / ETXARRI ARANATZ

Euskal Presoak Euskal Herrira! Kontzentrazioa. Herriko plazetan, 20:00etan.

LARUNBATA 17

ALTSASU Altsasutik Lizarrara 119 km-ko joan-etorria eginen du zikloturista taldeak.

Bizikleta martxa. Baratzeko bideko lokomotoratik,

08:00etan.

IZURDIAGA

Inti raymi ospakizuna.

Futbol zelaian, egun osoan zehar.

OLATZAGUTIA

II. Nafarroako ezquila joleen topaketa.

Herrian, 10:30etik 15:00etara.

UHARTE ARAKIL

Artzain Egunaren 50. urteurrenaren aurreko jardunaldiak.

Informazio gehiago 9. orrian. Herrian, 17:00etatik aurrera.

LAKUNTZA

Gure historia argazkietan.

Ikusgai jarriko diren argazkietako lakuntzarrak zein diren jakiteko saioa.

Kultur etxean, 18:00etatik 20:00etara.

ALTSASU

Altsasuko herri kantak III antologia aurkeztuko du Trasteando taldeak.

lortia kultur gunean, 20:00etan.

IGANDEA 18**ALTSASU**

Atxerko gaztelura joanen dira Altsasuko Mendigoizaleak.

Egoitzatik, 6:00etan

SAKANA

Izpegi-Erratzu mendi ibilaldia Sakanako Mendizaleek antolatuta.

Autobusa Olatzagutiatik, 07:00etan

ALTSASU

XI. Iruñerriko mendizerrak zeharkaldian parte hartuko dute Barranka txirindulari taldeko mendi bizikleta sailekoek.

Egoitzatik, 07:30ean.

SAKANA

Herri galdeketak Irurtzunen, Irañetan, Arruazun, Lakuntzan, Urdiainen, Altsasun, Olatzagutian eta Ziordian.

Kontsultatu egitarauak 2-5 orrietan. Plazetan, 9:00etatik.

UHARTE ARAKIL

Artzain Egunaren 50. urteurrenaren aurreko

jardunaldiak.

Informazio gehiago 9. orrian.

Itxesia futbol zelaian, 11:00etatik aurrera.

ALTSASU

Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa.

Foru plazan, 20:00etan.

ASTELEHENA 19**ETXARRI ARANATZ**

San Donato herri eskolak Samsung smart school proiektua aurkeztuko du. Kultur etxean, 18:30ean.

Zer iruditzen zaizu Guaixe astekari berritua?

ASKO GUSTATZEN ZAIT	14 %73,68	<div style="width: 73.68%;"></div>
AURREKOA BAINO GEHIAGO GUSTATZEN ZAIT	3 %15,79	<div style="width: 15.79%;"></div>
TIRA	2 %10,53	<div style="width: 10.53%;"></div>
EZ DUT GOGOKO	0 %00,00	<div style="width: 0%;"></div>



DEKOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovennavarra.com
www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · ALTSASU
Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

ETXEBIZITZAK
ERRENTAN

Alokairuan hartuko genuke etxea edo pisua Urdainen. Tel 618 901 894.

Lakuntzan gela bateko apartamentua alokatzen dut, herriko etxe batean dago. Tel 679 50 54 64 Itzi.

LANAK-NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZAK

Sakanako hiru Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateen prebentzio zerbitzuek Jaibuserako arduradunak bilatzen ari dira. Interesatuak hiru mankomunitateekin harremanetan jarri daitezke: Irurtzun eskualdekoa 948 600 694, Etxarri Aranazko eskualdekoa 948 460 752 eta Burunda mendebaldekoa 948 467 662.

IRAKASKUNTZA

KLASEAK EMAN

Matematika eta fisika klase partikularrak ematen ditut. Tel 650 296 449.

OHARRAK

Otaiko ermitaren alde. Eraikina konpontzeko diru bilketa egiten ari dira. Ekarpenak parrokian edo herriko banku eta kutxetan zabalduko kontuetan sartu daitezke.

Enplegarritasuna hobetzeko bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzua. Sakanako Enpresarien Elkarrekin langabeei eta lan bila dabilzanendako aholkularitza zerbitzua da.

Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

Josefina Arregui kliniko baskidea izan nahi baduzu, urtean 12 euro edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazio gehiago amigosefinaarreguilagunak@gmail.com edo amigosefinaarreguilagunak.blogspot.com

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cedema-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sondotzea. Argibide gehiago: 948 5 6 70 10, sakana@cedema.es edo sakana.admon@cedema.es

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinika) edo 689 03 51 02 (Patxi) telefonoetara hots egin dezatela.

3MBk kontu korrontea zabaldu du Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalitzen eta finantzatzien: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>.

Euskaldun bat euro bat. Nafarroako erresumakoa izan zen Baigorriko Etxauzia gaztelua euskaldunentzat erreskuratu nahi da. Nafartarren eta euskaldun guztien etxea izan dadin. Gure kultura, ekonomia, historia eta mugaz gaindiko harremanak antzinarazteko gunea bizia. Informazioa www.euskaldunbateurobat.com.

Euskonews ekonomiko-ki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza, euskonews@euskonews.com, 943 32 22 94

OPATUTAKOAK / GALDUTAKOAK

GALDUTAKOAK

Mugikorra galduta. Norbaitek mugikorra bat aurkitu badu Iturmendiko ateraen, Bakaikura bidean, mese-dez dei dezala 620 988 443 telefonora.

Altsasuko Udaltzaingoak Altsasun galdutako gauza hauek dituzte: diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta mikilak: 19. Belatitakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Ebeko giltzak eta ibilgailuak.

SALDU

ANIMALIAK

Presca canario-dogo canario arrazako txakurkumeak salgai. Parasitoak hilda, txertoak eta mikrotxipa jarrita. Oso izaera ona. Tel 657 906 085.

www.iragarkilaburak.com

JAIOTZAK

June Goñi Jauregi, ekainaren 9an Etxeberrin.

EZKONTZAK

Garikoitz Gartzia Otxoa de Zuazola

eta Ana Fuste Agirre. Ekainaren 10ean Ziordian.

URTEURRENA

Iker Borrega Arnedo

Bost urtez zure taupadak sentitzen

2012ko ekainaren 25ean.


ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskela@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 € prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.

EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 09




Ostiralean hobekuntza espero dugu orduetara aurrera egin ahala. Ipar-ekialdeko haizea ibiliko da.

Larunbata, 10




Larunbatean giro eguzkitsua. Lehen orduetan lainoa eta lanbroa, gainerako orduetan zerua oskarbi.

Igandea, 11



Iganderako, larunbatean bezala tenperatura zerbait igoko da. Egurdian eta arratsaldean kontuz!

Astelehena, 12



Astelehenean aldiz, tenperatura beroenak zertxobait behera egingo du, baina minimoetan gora.

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKIAK@GUAIXE.EUSWWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

• Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

• Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.

• Weborriko ez dago eperik

• GUAIXE ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.
- Iragarkiak Guaixe paperean eta Guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Aste batez 3 euro, bi astez 6 euro eta hiru astez 8 euro (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

40 aniversario
IRACHE

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

🐦 @Grupolrache

📘 Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es

Olatzagutia margotzen, hamargarren aldiz

Olatzagutiko pintura azkarreko lehiaketak hainbat margolari erakarri zituen Burundako herrira. Hura koadrotarako eredu bezala hartu eta makina bat lan sortu zituzten. Epaimahaiak dozena erdi sari banatu zituen.

OLATZAGUTIA

Mihise zurituan pintura zabalduz Olatzagutia koadrotan islatzen izan ziren hainbat margolari igandean. Olatzagutiko pintura azkarreko lehiaketaren hamargarren edizioak erakarri zituen guztiak. Hiru mailatan banatuta, margolariak herrian eta dermioan barna banatu ziren zein bere lana egiteko.

Helduen mailan zortzikote bat neurtu zen eta aurreneko saria (500 euro) Felix Flamarique Martinez iruindarrak eskuratu zuen. Flamariquek badaki Olatzagutian irabaztea zer den, 2014an postu bera eskuratu baitzuen. Helduen mailako epaimahaiaren akzesita (250 euro) Maria Maldonado Alconada irundarrak eskuratu zuen. Maila horretan olaztiar parte-hartzailearen saria (200 euro) Cristina Pinto Fusterendako izan zen.

Gazte mailako saria Naroa Garcia Aristurendako izan zen. Berak plastika, argazkilaritza



Olatzin kalean margotzen.

edo kirol materialean gastatzeko 150 euroko txartela eskuratu zuen Olatzagutiko udal ordezkarien eskutik.

Haurren mailan, azkenik, aurreneko saria Eder Arrizabalaga Otxoarrartek eskuratu zuen.

Bigarrena Naroa Otxoarrarte San Gilendako izan zen eta podiuma Alaia Sevilla San Gilen ek osatu zuen. Hirurek plastika-arterako materialak jaso zituzten kultur etxean egindako sari banaketan.

Mary Poppins musikala eta bestelako dantzak

Irantzu Gonzalez dantza eskolaren emanaldia lortia kultur gunean, larunbatean, 18:00etan eta 20:00etan

ALTSASU

Ikasturte akaberako dantza jaialdia eskainiko du Irantzu Gonzalez dantza eskolak. Horretarako *Mary Poppins* musikalaren abesti ezagunekin eta gaur egungo musikekin eta era guztietako dantza estiloekin osatutako programa prestatu dute. 4 eta 60 urte bitarteko 120 bat dantzari ariko dira Altsasuko kultur gune eszenarioan. Guztiek guxtienez birritan dantzatu dute. Batean musikaleko dantza bat eskianiko dute. Ikasleek eskainiko duten beste dantza mugi-



Dantzariak entsegu batean. UTZITAKOIA

tuagoa izanen dela aurreratu digute eskolatik.

Dantza emanaldia ilbeltzetik ari dira prestatzen. Hura prestatu ahala dantzariak teknikan trebatzen eta maila hartzen joan dira. Aipatutako saioen ondoren, musikan oinarritutako bakar-kako dantza inprobisazioen txanda iritsiko da.

Udako ikastaroak

Aurreko urteetan bezala udarako dantza campusa antolatu du Irantzu Gonzalezek. Altsasuko Otadiko Santo Kristo Deuna aterpetxeak hartuko du dantza campusa beste behin. Adinaren arabera bi txanda prestatu ditu, 2005etik aurrerakoendako bata eta 2010tik aurrera jaiotakoendako bestea. San Juan kaleko dantza eskolan argibide guztiak emanen dituzte.



Elai Alai eguna ospatu zuten

Elai Alai dantza taldeko dantzariak bere eguna ospatu zuten igandean Lakuntzan. Kalejira egin zuten herrian barna, hainbat kale eta txokotan geldialdiak eginez eta dantzak eskainiz. Gero, plazan bildu ziren eta azkeneko dantzak egin zituzten. Bukaeran auzate ederra egon zen plazan bildutako guztiendako..

Altsasu eta Olatzagutia Kultur programako egoitza

Kultura, Kirol eta Gazteriako Departamentuaren Kultur programaren edizio berriak 40 kultura-jarduera antolatu ditu paisaiaren eta naturaren ikuspuntutik interesgarriak diren Nafarroako 38 herri eta lekutan. Tardean daude Altsasu eta Olatzagutia.

Hilaren 29an Pititako taldea ariko da Olatzagutiko Sarasate plazan, bere rock eta runba flamenko nahasketa eskaintzen. Garilaren 5ean, Altsasuko Usolarrainen, Fix This talde madrildarra arituko da. Euren eskaintzak jazz, bluesa, swinga, New Orleansgoa, flamenkoa, arabiar musika, Frantziako beata eta abarrek osatzen dute.

Larrain dantzaren entseguak prest dira Irurtzunen

Irurtzungo festetan hutsik egiten ez duen herri dantzaldietako bat da Larrain dantzarena. Hura ikasi edo freskatu nahi duenarentako entseguak prestatu dira: eskolako gimnasioan, ostegunetan, 20:00etan. Aurrena atzo izan zen. Hurrenak 22an eta 29an. Entseguetan eta festetako dantzaldian parte hartzera animatu dute antolatzaileek.

Udako ordutegia hartu dute liburutegien sarekoek

Nafarroako Liburutegi Sarearen barruan dauden liburutegiek udako ordutegia ezarri zuten atzo. Haiek erabili nahi dituztenek goizez pasa beharko dute. 10:00etatik 14:00etara Irurtzungo, Etxarri Aranazko, Urdiaingo, Olatzagutiko eta Ziordiko liburutegien kasuan. Eta, 8:30etik 14:30era, Altsasuko liburutegiaren kasuan. Udal liburutegi horien udako ordutegia irailaren 15era arte mantenduko da. Eta gero, ohiko ordutegira bueltatuko dira.

Bestalde, Iruñean dagoen Nafarroako Liburutegiak hilaren akaberara arte 8:30etik 20:30era zabalik izanen da. Garilean eta agorrilean, berriz, 14:30era arte.

Irañetak Bertso-Udalekuak hartuko ditu

Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak Bertso-Udalekuetarako bost txanda antolatu ditu. Bigarrena, Irañetako Juantziarena aterpetxean izanen da, garilaren 11 eta 20a bitartean. 13-14 urte arteko 35 gaztetxok parte hartuko dute. Bertsozaleekin eta kantagintzarekin lotutako saioak izanen dituzte. Baita bertso afaria edota irteerak ere.



Trasteando taldekoak asteazkenean Aita Barandiaran adinduen egoitzan eta Josefina Arregi klinikan ariko dira.

Trasteandok jendaurrean lan berria aurkeztuko du

Joan den mendeko 40, 50 eta 60ko hamarkadan Altsasun entzutea ohikoak ziren kantuen hirugarren bilduma aurkeztuko du Trasteando taldeak. Bihar izanen da, Altsasuko lortia kultur gunean, 20:00etan. Kantak erakutsi dizkietenak ariko dira ere

ALTSASU

Altsasuko materia gabeko ondarea jasotzen segitzen du Trasteando taldeak. Garai batean Altsasun entzutea ohikoak ziren kantak jaso dituzte aurreko bi diskoetan. "Azken diskotik kanpo 8-10 kanta kanpoan gelditu ziren. Bilketa lanarekin segitu dugu eta disko berrian 18 kantu

sartu ditugu". Cruz Mari Martinezen azalpenak dira. Trasteandoko kideak azaldu digunez, "memoria erreskatatzeko ariketa da gurea. Kantek zein izan garen eta zein garen diote. Guk gainontzekoendako berreskuratu ditugu". Ondare horren berreskuratzearen garrantzia nabarmendu du Trasteandoko

kideak: "bestela, kanta horiek desagertu egingen lirakeke, jendea hiltzen delako".

Kantuen inguruan galdetuta, Martinezek azaldu digunez, "harri kantak, irratian entzun eta moldatutakoak, soldaduskatik ekarritakoak edota Potaje eta konpainiak sortutakoak daude" diskoan. Duela hilabete inguru

hil da Potaje eta hari aipamena egingen diote biharko kontzertuan. "Grabatu ditugun kanta askoren konposatzailea izan da", argitu du Martinezek.

Lana, Ricardo Aretak Altsasun duen musika estudioan grabatu dute. "Herrian bertan grabatzeak kantak irakatsi zizkigutenetako batzuk gurekin grabatzea erraztu du" argitu du Martinezek. Trasteandokoek lau kantutan Candi Arnanz, Felipe Villareal, Gerardo Olmedillo, Jose Bergeira, Jose Urizar, Juan Gonzalez de Azilu, Martin Lezea eta Vicente Zufiurreren laguntza izan dute. "Hunkigarria izan zen". Apiril erdialdetik eta maiatza hasierara izan ziren grabatzen.

Sarrerarik ez

Dena salduta dagoela emanen du kontzertua Trasteandok. "Horrek esan nahi du herri musika gustuko duen publiko bat dugula" azaldu du Martinezek. Pozik dago harrerarekin. Taldeak 14 bat kide ditu. Kantuan aritzeaz aparte, akordeoia, baxua eta gitarrak jotzen dituzte. Emanaldi berezietan tronpeta (Kostantxo Gonzalez), bonbardino (Jesus Irisarri) eta bateria (Josetxo Lumberras) jole banaren laguntza dute. Kontzertua Jabi Bergarak aurkeztuko du.

Taldeak grabazioak sortutako gastuak kontzertuko sarrerekin eta diskoaren salmentarekin estali nahi du. Haren aleak emanaldian bertan eta Altsasuko

dendetan eta ingurukoetan erosteko aukera izanen da. Bestalde, heldu den asteazkenean, Trasteando taldeak Josefina Arregi klinika eta Aita Barandiaran adinduen egoitzak bisitatuko ditu. Urtero garagarrilean eta abenduan joaten dira bietara emanaldi bana eskaintzera. Izan ere, taldeak musikaren gizarte arloa asko zaintzen du.

Aurreko lanak

Trasteando taldeak Altsasuko herri kantekin osatutako aurreko diskoa 2012an kalera-tatu zuen. Bi urte geroago, 2014an, bigarren kantu altsasuarren bilduma aurkeztu zuen taldeak. Diskoetako liburuxkak kantutegi gisa ere erabili zitezkeela gaztigatu zuten orduan taldekideek.

Bai aurreko lanean baita honetan ere diskoaren azalerako Trasteandok Dora Salazarren lan bana aukeratu du. Bihar aurkeztuko duten diskorako sortzaile altsasuarren ohikoak dituen argazki moldatuetako bat da, kasu honetan herriko tren geltokiaren argazki baten gainean aritu da margolaria.

"MEMORIA ERRESKATZATZEKO ARIKETA DA. KANTEK ZEIN IZAN GAREN ETA ZEIN GAREN DIOTE"



IZASKUN BENGOTXEA

Irakurle taldea idazlearekin

Irurtzango irakurle taldeak, denboraldia despeditzeko, topaketa berezia izan zuen joan den asteko ostegunean. Ohi bezala, udal liburutegian elkartu ziren, baina oraingoan haiekin batera, Juan Manuel Esteban idazle irurtzundarra izan zen. *Tras la pared* (2017,

Editorial Circulo Rojo) liburua idatzia du eta irakurle taldearekin horren inguruan hizketatu zen. Eleberrian etxe baten zaharberitze lanetan agertzen diren papiroek Vasconiako biztanleen bizimoduaren berri ematen dute.

Poyoren Engañoako tunelaren inguruko proiektua Madrilen

Bukatu gabe historia baten berrirakurketak sortu ditu memoria, identitatea eta ondarea oinarri izanik

ALTSASU

Txuspo Poyok bideo-arte proiektu baterako BBVA fundazioaren diru-laguntza jaso zuen. *Engañoako tunela, espedientea* lana aipatu fundazioaren Madrilgo egoitzan maiatzaren 12tik igandera arte egon da ikusgai.

Engañoako tunela Kantabria eta Burgos arteko tren tunela 7 km luze da. 1942 eta 1959 urteen artean eraiki zuten Frankismoko preso politikoei eta bi trenbide hartzeko gaitasuna du. Baina sekula ez da erabili. Poyok tunelaren erai-

kuntzaren inguruko ikerketa egin du.

Materialetik harago, tunela uztearen sinbolo gisa aurkeztu du. Lanaren ardatza galeraren sentimendua da. Bideo-artean hori elefante baten bidez irudikatatu du, bera baita dolua intentsitate handienaz sufritzen duen animalietako bat. Haren bidez iragana eta oraina lotu ditu. Gainera, tuneleko ahoko karteleko letra bat berreraiki, barruan denbora kapsula jarri eta han lan egin zutenen testigantzak kokatu ditu.

“Hemengo lan baldintzak askoz hobekak dira”

Izaskun Marin Peñas altsasuarra erizaina da. Hemen lan falta ez zuen, baina aldi bateko kontratuak ziren, bajak, oporrak eta beste ordezkatzekoak. Atzerrira joatea erabaki zuen eta Ingalaterran dabil lanean. Bere esperientziaren berri eman digu.

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

1. Zergatik joan zinen atzerrira?

Erizaintza ikasketak bukatu nituenetik ospitaleetan, osasun etxeetan, zahar-etxeetan... lan egin izan dut, baina beti ordezkapenak, bajak, oporrak eta halakoak egiten. Larrialdietako masterra egin nuen baina egoerak paretsu jarraitzen zuela ikusita, atzerrira jotzeko ordua zela otu zitzaidan. Infojobs portalaren bitartez lan eskari pare bat bidali nituen eta hurrengo egunerako nire curriculumak eskatu zidaten, ingelesez.

2. Lana topatzeko prozesua, hortaz, azkarra izan zen.

Oso betekizun gutxi eskatzen zituzten: erizaina izatea eta “pin number” izatea, hau da, erizaina tituluaren elkargokidearen baliokidea, edo hura lortzeko bidean edo tramiteetan egotea. Ingalaterran erizainen eskariak handia izaten jarraitzen du, baina orain prozesua konplikatuagoa da. “Pin number” delakoa lortzeko gaur egun ingeles azterketa nahiko exigentea gainditu behar da. Baina ospitale gehienek tramite hori lortu ahal izateko laguntza ematen dute.



Izaskun Marin Peñas, Ingalaterratik bidalitako irudi batean.

3. Zein hiritara joan zinen?

Wiganera joan ginen 18 pertsonako taldea, Manchesterretik iparraldean dagoen hiri batera. Nahiko handia da baina herri baten bizimodua dauka. Eta han eman ditut hiru urte.

4. Ingalaterran zergatik dago erizainen horrenbesteko eskaria?

Erizain eta medikuen ratioak handitu dituztelako eta eskari hori betetzeko profesional nahikorik ez dagoelako. Europar Batasunaren eskariei kasu egi-

nez, erizaintza titulua baliozkotzeko Europar Batasuneko profesionalak ekarri behar izan dituzte. Ingelesek erizaintza eta medikuntza ikasten dute, baina ez dago nahikoa jenderik dagoen beharrerako eta askok Australia eta Zelanda Berrira jotzen dute, aukera dutenean, baldintza hobekoak dituztelako.

5. Nolakoak dira Ingalaterrako larrialdiak hemengoekin alderatuta?

Ingalaterrako larrialdiak eromena dira, beste tokietan bezala. Gaixok artatzeko beharrezkoa den denbora da interesgarriena. Ingalaterran gehieneko denbora bat dago gaixoa atenditu, diagnostikatu eta tratatzeko. Doazen gaixok hartu eta haien larrialdi egoeraren arabera klasifikatzeko gehieneko ordu erdiko tartea dago eta gehieneko gaixo batek ezin ditu 4 ordu baino gehiago eman larrialdietan. Bestela, Gobernuak ospitale hori zigortzen du, baliabide ekonomiko gutxiagorekin.

6. Orain Manchesterren zaude.

Hasieran joan ginenetik ez zen Wiganen inor gelditzen eta hiru urteren buruan, aldaketa baten beharra nuen, beste espezialitate bat probatu beharra. Ospitale eta espezialitatez aldatzea oso erraza da Ingalaterran. Egun Manchesterreko hegoaldeko Stockport ospitalean lan egiten dut, Zainketa Intentsiboen Unitatean (UCI), martxoaren bukaeratik hasita. Gauza berriak ikasten ari naiz. Etorkizunean larrialdietara itzuliko naiz baina egun, pozik nago hemen.

7. Duela gutxi atentatua izan zen Manchesterren. Lanean zeunden?

Ez, Manchester Arenatik 15 minutu eskasera nengoen. Gure ospitalean 3 zauritu izan genituen 4 egunez, oker ez banago. Hasierako sustua gainditu da, baina jendea alerta dago. Dena den, ohiturak ez dira aldatu. Are gehiago, diru bilketa egiteko ekitaldi gehiago antolatuta dira.

8. Honuntau bueltatu nahiko zenuke?

Bueltatu nahiko nuke, baina egun hori ez da posible. Hango baldintzak ez dira hemen ditudan baldintzetara ezta gerturatu ere egiten. Momentuz orain pozik nago Ingalaterran. Eroso sentitzen naiz hizkuntzarekin, lanarekin eta aurrera egiteko eta garatzeko eskaintzen dizkidaten aukerak interesgarriak dira: urtean 7 opor aste eta ospitaleak ordaindutako formazio ikastaroak, besteak beste.

9. Brexitak eraginik izango al du zure lanpostuan eta bizitzan?

Brexit sekulako misterioa da. Inork ez daki zer gertatuko den, politikariek ere ez. Momentua iristen denean iritsiko da kezkatzeko garaia.

10. Atzerrira lan egitera joatea animatuko al zenuke jendea?

Jendea bidaiatzera eta probatzeko beldurrik ez izatera animatzen dut. Hobeki edo okerrago atara daiteke, baina beti dago bueltatzeko aukera.

11. Altsasutik zer botatzen duzu gehien faltan?

Familia eta lagunak, baina Skype eta Whatsapparekin etengabeko harremana dut beraiekin. Ahal bezain gehien joaten naiz, baina ez gustuko nukkeen bezainbat. (Osorik www.guaixe.eus).

Bazkide zozketa

GARAGARRILEKO SARIAK:

1. SARIA:

EKAINBERRI: 2 SARRERA
 ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA
 LACTURALE: ESNEKI LOTEA
 GAZTEZULO: 3 HILABETZ DOAN
 AQUARIUM: SARRERA BAT

2., 3. ETA 4. SARIA:

ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA
 LACTURALE: ESNEKI LOTEA
 GAZTEZULO: 3 HILABETZ DOAN
 AQUARIUM: SARRERA BAT



CAMPING
 ARTAZA



Ekain berri



AQUARIUM